

Arrasate

P R E S S

2000.eko
martxoak 31
490. zenb.



Bagatoz!

Adimen urriko mondragoetarrak lanera

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: JUAN JOSE GOENAGA
KIROLAK: UDABERRIKO TXAPELDUNAK • KULTURA ELKARRIZKETA: AITOR ELIZARAN

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatiä) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22-1. ☎ 943 79 72 16

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEÄ Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NÚÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Publizitatea

Jendea produktu bat kontsumitzeraz bultzatzea helburu duten komunikazio-tekniken multzoa omen da publizitatea. Hala dio Euskal Hiztegi Entziklopedikoak. Saldu beharrez, muga guztiak hautsi direla dirudi.

Mugak hautsi nahi horren lekuko, hurrengo adibidea. Erreferente historikotzat Argentinako diktadura militarra dugu: bere biktima asko itsaso hondora bidali zituen. 1998ko apirillean, Diesel markako arropa-lantegiak Argentinako Gente aldizkarian iragarki bat argitaratu zuen praka batzuen berri emateko: mezuaren arabera, praka haiek garbiketaz guztiak jasaten zituzten. Argazki batean zortzi gazte agertzen ziren, zementuzko bloketara kateatuta itsas hondoan. Azpian zera zioen: "Ez dira zure



Karmele Perez

lehen jeans-ak, baina izan litezke azkenak. Hilotz ederra utziko duzu behintzat".*

Norbaitek pentsa dezake adibide hori zertara ote datorren. Urrun samar geratzen zaigula pentsa daiteke. Pentsatu nahi dut ankerkeria galanta iruditu zaigula adibidea eta pentsatu nahi dut harridura eta haserrea erakutsiko dugula

erantzun gisa. Zoritxarrez, horrelako basakeriak ikusteko ez dugu haraino joan behar, egunero etxean sartzen baitzaizkigu horren pareko adibideak. Egongo da, nondik nora nabilen asmatu duenik. Alegia, interneteko enkante bat promozionatzeko giza bizitza saldu eta galdu behar da dena salgai dagoela-eta? Mezuak posta elektronikoz lehenago eta seguruago iristen direla frogatzeko usoak akabatu behar al dira?

Duela pare bat

hilabete, teknologia berriez, egungo kontsumismo eta gizatasun ezaz eta gazteei erakusten zaizkien ereduez hitz egin nuen. Horren lekuko, sarri publizitateak saltzen diguna: "Garrantzitsuena ez da parte hartzea, irabaztea baino". Konpetentzia baita gaur egun mundua mugiarazten duena.

Publizistek horrelako mezuak zabaltzea baino gauza tristeagorik badu, kontu honek: mezu horiek saldu egiten dutela, gizatasun eta zentzuaren gainetik irentsi, onartu eta aintzakotzat hartzen ditugula. Lehen publizitate subliminala salatu egiten zen, zuzena ez zela-eta. Gaur ez dago subliminaltasunaren premiarik, antza. Gauzak gordin esan eta eginda ere, inolako arazorik gabe irensten baititugu.

Jendea produktu edo zerbitzu bat kontsumitu edo erabiltzea bultzatu nahi izatea gauza bat da, eta horretarako morbo hutsaz eta mugen bortxaketaz baliatzea beste bat. Publizitateak erakutsi du dagoeneko beste hamaika bide dituela horretarako. Saldu beharrez, denak ez du balio. ■

* Eduardo Galeanoren aipua

Garrantzitsuena ez da parte hartzea, irabaztea baino

"Beti esan izan dut amari esker bizi naizela. Hizkuntza eman zidan eta hortatik bizi naiz. Bizia eman zidan eta horri esker bizi naiz"

Joserra Agirreurreta



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marjo Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarrina. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiate. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Zuzentzailea: Arantzazu Lodi. Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trutxuelo. Asteburuetako berriemak: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Karmele Perez, Iker Ezpeleta, Nekane San Migel. Banaketa arduraduna: Nalara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo konizertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trutxuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

1.824.453

lanordu galdu zituen MCCk iaz, lan hutsegite edo absentismoaren eraginez.

Konparazio baterako, 1.038 lan bazkide urtebetez lanera joango ez balira adina ordu. Azken hamar urteotako mailarik altuena da: %4,76.

Honen harira hiru neurri aurkeztu ziren batzar orokorrean, baina ez zen bat bera ere onartu.

ITURRI ONETIK

Goiena, eredu

Joan den astean bilera berezia egin zen Gipuzkoako Foru Aldundian. Mahaiaren alde batean Luis Mari Bandres Kultura diputatua eta Lore Leanizbarrutia Euskara zuzendaria. Bestean Goiena taldeko hiru ordezkari.

Diputazioako arduradunak interes handiz ari dira jarraitzen Goiena Komunikazio Zerbitzuen egitasmoa. Zenbait adituren iritzia ere eskatu dituzte proiektu honen inguruan eta hauek berretsi egin diete hemengo egitasmoaren garrantzia. Diputazioak Goiena bezalako komunikazio zerbitzuak sortu nahi ditu Gipuzkoan, bailarako antolatuta. Horretarako Goiena hartu nahi du eredu, atzetik etorriko diren egitasmoei hobeto laguntzeko. Horren haritik, Diputazioa prest dago, besteak beste, Goiena Telebistaren hedapeneko gastuak diruz laguntzeko.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igoalatoroa 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Arrasate
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Onati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

IZAR BERRI BAT PIZTU- TZERA GOAZ EUSKAL HERRIKO ZERU GAINEAN

Gauero gauero, Kanbon, gartzainak bordatik atera eta ortzean izarrik denetz so egiten du, zerua izarrez gainezka dagoenean larrean etzan eta gora begiratzeko ohitura baitauka.

Urteak eta urteak daramatza ohitura berari eutsiz, urtea joan eta urtea etorri, gaua joan eta gaua etorri. Milaka izar ditu jadanik ikusiak, izar gazteak, distiratsuak, sekula itzuliko ez diren izarrak. Jadanik artzainaren parte bilakatu diren izarrak, bere bizitzaren zati; eta harro dago izarren adorea, gau beltzeneri aurre egiten ikusi baititu, trumoi eta tximista gosetien atzaparretatik gailentzen. Ikusi ditu egunetik egunera sendotzen, distiratsua go bihurtzen. Ziur dago zerua sortu aurretik izarrik bazela eta haiek ehun zutela hari mehe eta ilunez bere begien aurrean gaue-ro pausatzen den eraikin beltza.

Apirilaren 20an, ohi bezala, artzaina larrera atera eta bertan etzan egingo da. Begirada gora zuzenduta lo geratuko da. Izarrekin dago amets, izar argi eta distiranteekin.

Halako batean, izar denak elkarlotu egin dira eta izar berri bat piztu dute zeru gainean, gaua egun bihurtu duen izar eskerga. Begiak ireki ditu asal-

Gutunen araudia

Arrasate Pressen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, nahita ez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Horik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erredakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimoak eta gaitzizen edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordeen kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarriak ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du, egilea bera dela egiaztatzeko. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

datuta eta ohartu da izar handi batek, sekula ikusi duen ederrrenak, zerua estaltzen duela, ohartu da ametsa egia bihurtu dela.

Eta izarren barranean bi sorburu, bakar batean urtu diren bi bihotz ikusi dituela iruditu zaion uanean, eztanda argitsu bat gertatu da eta izar hautsak barreiatu dira nonahi, ikutzen zuten guztia argitasun bihurtuz.

Artzaina aske senditu da.

Jarrai eta Gazteriak taldeak

Okerrak zuzentzen

Orain dela bi aste, Aramaion euskara elkarteak eratu zela esan genizuen. Txirritxola izena zuela ere esan genizuen. Baina Txirritxola barik, "Txirritola" idatzen dela jakin dugu. Ahozkatu, ordea, "Txirritola" egin behar da, hau da, T-ren bustidura egin behar da.

Adituen esanak dira, beraz, horixe: "Txirritola" idatzi eta "Txirritola" esan.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 31**
 • Ruiz, Maalako Errabala
- Larunbata, 1**
 • Morales, San Andres
- Igandea, 2**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Astelehena, 3**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Asteartea, 4**
 • Korkuera, Musakola
- Asteazkena, 5**
 • Irizar, Erguin
- Osteguna, 6**
 • Amezua, Santa Marina

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

ML

ILE APAINDEGIA


Alfonso X jakintsua, 1 behea
 (Grupo San Juan)
 Tel.: 943 79 79 65

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

Errezeta bako botikak farmazietatik kanpo saltzeaz zer?

Katalunian errezetarik behar ez duten botikak beste saltoki batzuetan jartzea proposatu dute.



Jesus Zenigaonandia
(52 urte)
Langilea

➤Oso ondo, farmazietan saltzen badituzte, zergatik ez beste leku batzuetan?



Agurtzane Urizar
(42 urte)
Langilea

Ondo, arriskurik ez badute, ondo. Honela, hurbilago izango genituzke eta ez genuke gau eta eguneko farmaziarren bila ibili beharko.



Jaione Guezmes
(38 urte)
Langilea

Botika motaren arabera, agian ondo legoke.



Luis Sagasta
(49 urte)
Langilea

Ez dakit, botikariak zerbaitetarako daude. Dena dela, ikusi egin beharko litzateke zein botika saldu daitekeen famarziatik kanpo.



Eugeni Irasuegi
(56 urte)
Etxekoandrea

Ondo, gero ez genuke farmazia bila ibili beharririk.




Koldo Azkarraga
(48 urte)
Langilea

Kontrolatuta egotea hobeto izaten da. Informazio gutxi dago horren inguruan. Ez dakigu zer den ona eta zer txarra.



Itziar Izquierdo
(26 urte)
Langilea

Ondo, zergatik ez? Beste gauza batzuk ere saltzen dira farmaziatik kanpo. Gainera, merkeagoa izango litzateke.



Juan Pozo
(59 urte)
Erretiratua

Gaizki, hori kontrolatu egin beharko litzateke.





Otalora 5, 1-B · ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Buruan dituzun arazoei agur esan

Sagardotegia Txotx egin!



ITURRIETA

Aragoa auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

USTEAK USTE

Batera

Batera joateak alde on asko du. Denak ez esatearren.

Nahi dena lortzeko hobe da indarrak batzea eta aldarrikapenak egiteko batera arituz gero, gehiagoren nahien alde arituko gara. Horregatik sortu zen Batera plataforma. Elkarrekin, guztion eskaera bat aldarrikatzeko: Euskal Presoak Euskal Herrira. EAJ, EH, EA eta Ezker Batuak, Batera joatea erabaki zuten eta Batera, Lizarrako akordioaren haritik sortu zen.

Egoera, ordea, aldatu egin da batzuen aburuz, ETAk su-etena bertan behera laga duelako.

Kontuak kontu, euskal presoek Espainiako espetxeetan segitzen dute eta euskal presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidearen aldarrikapena zilegi da oraindik ere, eta horrela izango da, lortu arte.

Batera desagertzear zegoela esan zuten joan den asteazkenean. Arrasaten hamabostero egin izan diren bilkurak egiteari lagako diote, horrela bada.

Denok bat baldin bagatoz, denok euskal presoak Euskal Herrian bizi izateko eskubidea dutela uste baldin badugu, "Batera" segitu beharko genuke.

Marijo Deogracias



Jubileoko misioa

* Juan Jose Goenaga

Jubileoa eta Misioa. Bi hitz. Igarotako, eta ondo igarotako, mundu erlijioso-sinbolikoaren ezaugarriak zenbaitentzat. Gaur egun, agian, esanahi gutxi dutenak, Erromara joan-etorri bat egiteko aitzakia edukitzea izan ezik.

Ordenadoreen aroan, espazio kosmikoko aurkikuntzen ondoren... nola sinetsi Jainkoarengan eta Jesukristorengan?

Galdera hau, bestalde, ez da gaur goizekoa. Aro bakoitzak egin du galdera hau Europan, aurkikuntza bakoitzaren ondoren.

Eta Jainkoarengan eta Jesukristorengan fedeak dirau.

Aurten ari gara ospatzen, nahiz eta ez izan data zehatzak, jesukristo jaio zela 2000 urte. Horren Jubileoa ari gara ospatzen.

Zer du, bada, helburu jubileoko misio honek?

Elizaren baitan eta asmoetan misioa denoi zabaldua eta zuzendua da. Lehenengo, kristau sendoei, fede argitu eta sendotu dezaten.

Baita benetako kristau izanik ere, gure garai haue-tako krisiak jota erdi etsipendurik daudenei, fede aitortzeko adorea berreskura dezaten; eta, azkenik, fedezalantza artean borrokan daudenei dago zuzendua, fede sendotu eta zalantzei aurpegi eman diezaieten.

Baina, fedegabeak inolaz ere ahaztu gabe. Jesukristoren aurpegia hobeto ezagutzera, eta fede ezaren eta ezinaren arrazoiak zenbaterainokoak diren sakonak planteatzera.

Gure Mendebaleko kulturaz zaila da, eta batera edo bestera, haurtzaroen edota geroago, Jesukristoren

“
Krisiak jota erdi
etsipendurik daudenek,
fede aitortzeko adorea,
berreskura dezaten
”

(gutxienez haren izenarekin) topo ez egitea, eta hartaz dau-den iritziekin topo egin gabe bizitza osoa ematea.

Asko edo gutxi pentsatuta, iritzia ematen ausart samarrak garena ezin uka.

Nik, inkestarik egin gabe, Arrasateko giza-maila batean azken urteotan jaso dudana irizpide hau izan da, Jesukristo eta Elizari buruz:

Jesukristo, kristautasuna, interesgarria izan da gure belaunaldiarentzat. Haren mezua, batez ere: askatasun egarria, berdintasunaren irrika, giza duintasuna eta elkar-tasun, handik edan dugu guk; hots, kristautasunetik eta Elizatik edan dugu guk.

Eta horretan saiatu gara gaztarotik, eta gauza asko egin ditugu. Ikusi besterik ez dago... Baina... Jesukristo bera, zer? eta hor isilunea dator askotan.

Zentzurik ba al du zuretzat hura maitatzeak, otoi-tz egiteak, hark bezala, Jainko-ari, areago oraindik... hari jarraitzeak giza bizitzan. Hau da kristau izatea. Jesukristo eredu etiko bat baino gehi-ago ez bada, "historia" barruan zeharo eta osoki kokatzen den bat da. Munduko eta munduaren "sistema" barruan. Gutako bat bes-terik ez da.

Horrelako bati ez dago otoi-tz egiterik, ez maitatzerik, ez adora-tzerik, eta ezin du inor salbatu. Hildako bat bes-terik ez da.

* San Andresko Parrokoa

Focus TDdi
Injekzio zuzena
2.019.000 pta.
Prever plana
eta deskontuak barne
MUGARRI
943 79 07 44

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78


M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

hildakoak

- Francisco Manuel Uranga Olabe. Martxoaren 24an. 87 urte
- Francisco Javier Alonso de Armiño Diez. Martxoaren 26an. 73 urte.

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 31

Egun lainotsua izango dugu. Tarteka, euria egingo du. Haizeak mendealdetik eta Ipar-ekialdetik joko du, ahul.



LARUNBATA 1

Laino gutxiago izango dugu eta arratsalde parterako goi lainoak agertuko dira. Tenperaturak gora egingo du



IGANDEA 2

Lainoak areagotuko dira eta euria egingo du tarteka. Tenperaturak gora egingo du. Izan ere, haizeak hegoalde-tik joko du.

Tenporak

UDABERRI NAHASIA


Pello Zabalak adierazi digunez, frantzi iparra nagusituko den arren, udaberri erdialdean, bigarren ilargi aldia, hego haizea iritsiko zaigu eta horrekin trumoia ere izango dugu lagun. Orokorrean, beraz, udaberri nahasia izango da:

- Martxoaren 21etik apirilaren 21era: hotza eta euri txikia.
- Apirilaren 21etik maiatza-

ren 21era: hego haizea eta, beraz, ekaitzak.

- Maiatzaren 21etik ekainaren 21era: frantzi iparra, beraz, hotza.
- Bitxikeria: Frantzi Iparrari Pellok kontatu digunez, gose haizea, haize gorria eta indulgentzi haizea ere deitzen zitzaion baserriarren artean. Izan ere, haize hotz horri beldurra izaten zioten baserriarrek.

Urkuluko uraren maila



%73,5

Ilargia



Ilberri

Apirilaren 4an ilberri izango da. Ereiteko garaia.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Andres eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

San Frantzisko eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

10:30 (erdaraz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata

19:00 (erdaraz)

Igandea

12:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

Larunbata

19:00 (elebiduna)

Igandea

11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Tel.: 943 71 23 91

LEHENENGO URTEURRENA



Manuel Uribe Mendizabal

Urtebeteko meza, Aramaioko Barajuen auzoko elizan 2000.eko apirilaren 2an, eguerdiko 12:00etan ospatuko da.

Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi. Bere familiak.

31
ostirala

■ ZINEA

Tres Reyes, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ SARI BANAKETA URIBARRIN

Uribarriko erretiratuen etxean mahai jokuen txapelketako sari banaketa eta jaialdia izango dira, 17:00.

■ YOGA HIZPIDE

“¿Que es el Yoga?” izeneko hitzaldia eskainiko du Alfredo Iglesias yoga irakasleak. Monterron, 19:00.

■ GARIZUMAKO HITZALDIAK

Garizuma garaian gaude-la eta, bi hitzaldi eskainiko dira gaur. Bata Uribarriko parro- kian emango du Jose Angel Agirre apaizak, 19:00, eta bes- tea Santa Teresa elizan Jabi Gomez Eskoriatzako parro- koak, 19:30.

■ KONTZERTUA JAMEN

Bi taldek joko dute gaur gauean Bergarako Jam areto- an: *Boikot* eta *Doble Gota* tal- deek. Sarrerak 1.200 pezetan. 21:45.

1
larunbata

■ ZINEA

ToyStory2, 17:00, eta *Tres Reyes*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ LUDOTEKA IBILTARIA

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria San Andres Herri Eskolan izango da gaur. 11:00- 13:00.

■ EUSKADIKO SAETA TXAPELKETA

Al-Andalus kultura elkar- tea, Gasteizko eta Ermuako andaluziar elkarrekin batera, Euskadiko V. Saeta Txapel- keta jokatzeko ari da. Lehe- nengo finalerdia Gasteizen izan zen, eta bigarrena Arra- saten izango da. Al-Andalu- sen egoitzan, 19:00.

2
igandea

■ ZINEA

ToyStory2, 17:00, eta *Tres Reyes*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ MAÑARIARA IRTEERA

Domeka goizean irtingo da Besaidek eta beste mendi- zale elkarte batzuek elkarre- kin antolatutako Mañaria- rako irteerako autobusa. Gari- bai kalean, 7:15.

■ ANTZERKIA AMAIAN

Txalo antzerki taldeak Sla- womir Mrozek autorearen *Los Emigrados* lana taularatuko du. Sarrerak 1.000 pezeta, 800 Gazte Txartelarekin. Amaia antzokian, 19:30.

3
astelehena

■ ZINEA


Tres Reyes, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ GARIZUMAKO HITZALDIAK

Arrasateko eliza-elkar- teak hitzaldiak antolatuko ditu. Gaur izango dira San Juan Bataiatzaile parro- kian eta San Andresko elizan eskainiko diren hitzaldietako lehenen- goak. Biak 19:00etan, egune- ro eguakitza arte.

Haur Liburuaren Eguna

Haur Liburuaren eguna ospatzeko, ekintza polita antolatu du Arrasateko Liburutegiak. Goizeko 10:00etan, Olarte, Umezaintza eta Erguin eta San Andres Herri Eskoletako 5 urteko umeak liburutegira joango dira, eta bertako zerbitzuak erakutsiko zaiz- kie. Ondoren, Itziar Zubizarreta ipuin kontalari donostiarrek saioa emango die. Eguakitzean, berriz, Musakolako Herri Eskolako, La Merced ikastetxeko eta Musakolako Ikastolako umeen txan- da izango da. Santamañako auzo liburutegian izango dira. Eta haur eta nerabeentzako literaturarekin jarraituz, gazte eta hel- duentzako hitzaldia eskainiko du hilaren 6an Lolo Rico errea- lizatzaile eta idazle madrildarrak, Monterronen, 19:00etan.



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



Transakzio, eragiketa fiskal
eta judizialak egiteko
TASAZIOAK

Maalako Errabala, 31 • Tel.: 943 77 13 02
ARRASATE • BERGARA • ELGOIBAR



Baserriak eta lurzoruak salgai:
Apozaga, Aramaio, Arrasate,
Bergara eta Soraluzen

Maalako Errabala, 31 • Tel.: 943 77 13 02
ARRASATE • BERGARA • ELGOIBAR

4 asteartea

■ **ZINEA**

Tres Reyes, 19:00 eta 21:30, Alai zineman. Ikusle-aren eguna.

6 osteguna

■ **LOLO RICOREN HITZALDIA**

Haur eta gazteentzako literaturari buruzko hitzaldia eskainiko du Lolo Rico errealizatzaile eta idazleak. Mon-terron, 19:00.

Udalekuetarako izen ematea



Hilaren 5ean, eguazte-
nez, amaituko da
Euskadiko Foru
Aldundiek antolatu
dituzten udalekuetara-
ko izena emateko
epea. 7 eta 13 urte

bitarteko haur eta gazteei dago zuzendua ekintza hau. Euskal Herri osoko 19 herritan izango dira egonaldiok, uztailean eta abuztuan. Lekuak zozketatu egingo dira, apirilaren 12an, jendearen agerian eta notarioaren aurrean. Zozketan parte hartzeko, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da Gazte Bulegoan: bertan banatzen den eskaera orria, eta neska edo mutilaren nortasun agiriaren fotokopia edo familia liburuan berari dagokion orrialdearena. Eskaerak banaka edo hirunaka egin daitezke, eta zozketaren emaitzak eskutitz bidez jakinaraziko dira.

■ **MOZAMBIKERAKO LAGUNTZA**

Harreman Arrasateko Hirugarren Mundu taldeak bi kontu ireki ditu Mozambikeri laguntzeko: Kutxan, 2101.0024 1001 2298 6177, eta Euskadiko Kutxan, 3035.0002 1000 2003 3659.

■ **GURE-LEKUKO LEHIA-KETA**

Apirilaren 9ra arte izango da Gure-Leku tabernako arte plastiko lehiaketan botoa emateko epea. Egun horretan bertan jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia, 19:30.

■ **ZABORRETATIK ATERAKO JOSTAILUAK**

Zaborretatik ateratako jostailuen erakusketa zabalduko dute Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolak. Zaborraren arazoa aztertzeko kanpainako hirugarren erakusketa izango da hau. Monterronen, apirilaren 4tik 9ra, aste barruan 18:00-20:00 eta asteburuan, gainera, 12:00-14:00.

■ **AUTOESTIMA IKASTAROA**

Emakume Sailak abiarazi duen autoestima ikastaroko beste talde bat eratuko da. Talde honek apirilaren 12an hasiko ditu eskolak, San Viator ikastolan, Pepa Bojo psikologoaren eskutik. Izen ematea doan da. Argibideak nahi izanez gero, jo udaleko Emakume Sailera. Tel.: 943 79 09 00

**TOLDOS
LECE C/B**

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari
aurre egiten
diogu inork
baino hobeto**

LAN ESKAINTZAK

AUKEA Kirol Erakundeak lan-poltsa hau osatzeko deia egiten du:

ATEZAIN - ARROPAZAINAK

Oinarriak: Musakolako Kiroldegian
Eskaerak aurkezteko epea: apirilaren 14a, berau barne.

ARRASATEKO UDALA

**AUKEA ■
Kirol Erakundea**

astea bi hitzetan

■ “Consumer” jogurtak erretiratu

Iraungitze data apirilaren 6a, 10a eta 12a duten “Consumer” markako jogurtak ez daude egoera onean. Hala-je jakinarazi zuen Eroskik pasa den larunbatean.

Jogurt hauek joan de astein banatu ziren Eroski, Erosle eta Charter dendetan. Eroskik produktu propio moduan saltzen ditu “Consumer” izenarekin, nahiz eta Donostiako Iparlat enpresak egiter dizkion.

Enpresa honek aitortu duenez, egon behar ez den legami mota bat antzeman dute jogurta egiteko erabiltzen dituzten silo batzuetan eta horrek eragin zuen sorta horietako jogurtek normala ez den fermentazioa izatea.

Arazoaren berri jakin

bezain laster, Eroskik “Consumer” markako jogurt guztiak kendu zituen bere denda guztietatik, baita Mondragoetik ere.

■ Gazteak borrokan

Jarraik deituta, ehundaka gazte kalera atera ziren ostiralean euren bizibaldintza kaskarrak salatzen. Kale agerraldia egin zen eguerdian eta goizean ikastetxeetan greba. San Frantziskoko biribilean errepidea moztu zuten. Ondorioz, Ertzaintza agertu zen eta gazteak handik altxa arazi zituen. Herritik korrika aldiak izan ziren eta Addeco aldi baterako enpresako kristalak apurtu zituzten ezezagun batzuek.

Arratsalderako, beste kale agerraldi bat zegoen deituta. Seberotik ateratze-

koa zen, baina, hantxe bertan kokatu ziren Ertzaintzaren bi furgoneta. Honen aurrean kale agerraldia atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek. Hamabostero moduan Baterak egin zuen bilkuraren ondoren burutu zen kale agerraldia. Ertzaintzak Seberon segitzen zenez, herriko alde zaharretik zehar bideratu zen protesta aldia. Modu honetan istilu gehiago saihestu ziren.

Kale borrokaren ondorioetako bat larunbat goizaldean Aretxabaletako BBVAren ordezkariaren kiskaltzea izan da. Gaueko ordu biak inguruan ezezagun batzuek sua eman zioten ordezkariari. Ondorioz, 30 milioi pezeta inguruko kalteak izan ditu banketxeak.

■ Harrobiak itxi!

Mondragoeko harrobiak ixtearen aldeko ekimenak egin dira herrian. Batetik, ostiralean, Seber Altube plazan kale bilkura egin zen harrobiek ingurugiroari egiten dioten kaltea salatzen. Era berean, harrobiak legez kanpo egiten dutela lan ere salatu zen agerraldiaren bitartez.

Asteartean, berriz, gai hau jorrazteko solasaldia izan zen udaletzeko areto nagusian. “Mañaria Bizirik” eta Arrasateko EKI taldeko kideek harrobien gaur egungo egoeraz hitz egin zuten. Oinarritzko baimenik barik lan egiten duen harrobi asko dagoela salatu zuten hitzaldian.



“ Azken bost urteotan euskaraz lan egiteko potentzial bat sartu da lan munduan, euskaraz lan egiteko gaitasuna duena edo ikasketak goi mailaraino euskaraz eduki ez arren, gutxienez, zati handi bat euskaraz eginda duen jendea aurkitu dugu; beraz, euskaraz aritzeko gaitasuna ekarri dute. Horregatik, barruko egiturak euskalduntzen ez baditugu, ez dugu jendearen gaitasun hori aprobetxatuko”.

ESTEBAN LASKURAIN

Gara
(2000.3.26)



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Eskaizta berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Lazkano

- SOINU PROFESIONALA •
- INSTRUMENTUAK •
- HI-FI / DVD •
- JOKOEN ALOKAIRU
ETA SALMENTA •

INAUGURAZIO EKITALDIA

apirilak 7, ostirala,
arratsaldeko 19:00etan

olarte, 41 • arrasate • tel.: 943 71 26 95

Lazkano

Vitorio Luzuriaga lanean

Tafallan dagoen Vitorio Luzuriaga enpresa lanean hasi da. Enpresako zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen artean lortutako aurre akordioa berretsi egin zen pasa den ostiralean eta honik esker, greba deialdia bertan behera geratu da.

Hitzartutako akordioan 130 lanpostuen liskarra albo batera utzi eta lan hitzarmenaren negoziazioa adostu zuten. Honela, lan hitzarmenean Kontsumorako Indizeen Prezioa gehi puntu bat onartu du zuzendaritzak, baita urtero 8 ordu gutxiago lan egitea ere. Honetaz gain, laneko huts egiteak kontrolatuko dituen proiektu talde bat eratzea adostu zuten eta baita gaixotasun kasuetan egin beharrekoa ere.

Hurrengoan, baina, zuzendaritzak soberan ikusten dituen 130 lanpostuen auziari heldu beharko diote Luzuriagan.


Gaztetxea eraiki eta antolatzeko lanak aurrera

Arrasateko Udala hasi da Gaztetxe berria egiteko aurreneko pausuak ematen. Gobernu Batzordeak Gaztetxe proiektua egiteko arauak onartu ditu asteon. Lau hilabete eta erdiko epea ezarri da proiektua idazteko eta 8.400.000 pezeta erabiliko da horretan. Arrasateko Gaztetxe berria Uarkape pilotalekuaren atzealdean kokatuko da. 1.500 metro karratuko eraikina izango da. Inguruan 1.000 metro karratuko lur zati urbanizatu izango du.

Pilotalekuaren eskuma aldetik, berriz, Gaztetxera heltzeko sarrera egingo da proiektuan ikus daitekeenez.

GALDEKETA PREST

Baina ez da udala Gaztetxearen inguruan lanean



Apirilaren 14an batzar irekia egingo da galdeketa erantzak baloratzeko.

dabilen bakarra. Herriko gazte eta talde askok bilera ugari egin dute, Gaztetxearen etorkizuna zehazteko. Tartean kale galdeketa bat egitea erabaki dute. Modu honetan, Gaztetxeari buruz ahalik eta gazte gehien iritzi eta proposamenak jasotzea espero dute.

Gaztetxe berria nolakoa izan beharko litzatekeen edo oraingo Gaztetxetik zer aldatu beharko litzatekeen galde-

tuko da, besteak beste. Galdeketa honen 500 kopia banatuko dira herriko ikastetxe, gazte talde, Gaztetxoko, gazte zerbitzu, taberna eta alderdien gazte taldeen artean. Erantzunak apirilaren 14a baino lehen jasoko dira. Egun horretan, batzar irekia izango da Gaztetxean jasotako erantzunak aztertzeko. Ohi moduan edozein herritar joan daiteke batzarrera.

Agur Hies Ekimena, kaixo Hies Berri



Hies Ekimena desagertzera doa. Ibilbide luzea egin ondoren, aro berri bati atak irekitzeko ordua dela uste dute bertako kideek.

Honela, bada, Hies Berri izena ipini zaio Hies Ekimeneri txanda hartuko dion taldeari. Orain arteko lanarekin jarraitu eta gaur egungo beha-

rei erantzun nahi die.

GALDEKETA PREST

Sortzaileak prestakuntza lanean dabiltza oraingoz. Sendagai berriak ondo ezagutzeko da helburuetako bat, izan ere, gaur egungo kezkak orain arte erabilitako sendagaien ondorio txarrak dira.

Kooperatibekin pozik

Hilabete inguruz gure artean izan ondoren, agurra egin zaie Hegoamerikatik etorritako zortzi bisitariari.

Kontatutakoaren arabera, hemen izandako esperientziarekin gustura bueltatuko dira bakoitza bere herrialdera. Ezagutzak, baloreak eta esperientziak trukatzeko izan da bisita honen helburua. Gobernu kanpoko Mundukide fundazioaren ekimena izan da, baina antolakuntza lanetan Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hainbat ikasle ibili dira.

Fernando Francesco, Nikaragutatik etorritako bisitariaren esanetan,



“garrantzitsuena kooperatibei buruz ikasi duguna izan da. Bereziki industria kooperatiba, hezkuntza kooperatiba eta finantza kooperatiben artean dagoen lotura.

Izan ere, hiru kooperatiba mota hauen artean dagoen elkarlanari esker lortu dute kooperatibek dauken tokian egotea”.

San Josepeko leherketen aurka

Herriko hainbat enpresak San Josepe harrobiko leherketak debekatu ditzala eskatu diote udalari, harrobiak beharrezko segurtasun neurriak hartu arte.

Urtarrilaren 3an San Josepe harrobian eztanda gogor bat izan zen. Leherketaren ondorioz, harrobiko harriak uste baino urrutirago iritsi ziren, inguruan hainbat kalte eraginez. Kaltetuen artean, Fagor Automation, Fagor Elektra-tresnak, Fagor Arrasate eta Omico enpresak izan ziren.

Enpresa hauek izan dira leherketak debekatzeko eskaera egin dutenak. Harrobiko leherketek behin baino gehiagotan kalteak eragin izan dituztela eta, kezkatuta daudela adierazi dute.

Honen aurrean udala hasi da San Josepe harrobiko arduradunekin bilerak egiten harrobiaren esplotazioa lehenbaitan lehen buka dezala eskatzeko. Horrekin batera, inguru hura



Udala eta San Josepe harrobiaren artean lehenengo bilera egin da.

berreskuratzen hasteko ere eskatuko dio harrobiari.

Asteazkenean egin zen lehenengo bilera. Alkatearen esanetan, erabakirik hartu ez bada ere, alde bietatik jarrera ona dagoela ikusten da eta hitzarmen bat lortzeko borondate ona erakutsi omen dute bi aldeek. Era berean, udalak jakinarazi duenez, joan den martxoaren 15ean udalak idatzi bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuari, leher-

ketak segurtasunez egiteko beharrezko bideak jar ditzala eskatuz. Esaterako, leherketak egon behar direnean garaiz abisatzeko; modu honetan udalak berak hartuko lituzke beharrezko segurtasun neurriak.

Honetaz gain, San Josepe harrobia berreskuratze eskaera egin dezala esan zaio Jaurlaritzari. Izan ere, gero-ra begira, Arrasateko Udalak gune hura industria pabilioiak eraikitze erabili nahi du.

Erguin auzoa eraberritzekotan

Erguin auzoan eraberritze lanak egitea erabaki du udalak. Erguin auzoa nahiko zaharra dela eta urbanizazio lanak egitea beharrezkoa dela uste du udalak. Aurreikuspenen arabera, Erguin auzoko zortzi kaletan egingo dira lanak: Anboto, Udalpe, Elizalde, Uriburu, Erguin eta Jauregibarria kaleetan, hain zuzen ere. Baita Uribarri etorbidean eta Udala plazan ere.

Ur eta elektrizitate sareak berritu, argiteria berria ipini eta zolamendu lanak egingo dira, besteak beste. Hori guztia egiteko, baina, proiektua idatzi beharra dago aurrenik. Orain, Gobernu Batzordeak proiektu honek jarraitu beharrek arauak onartu berri ditu.

Arauek zehazten dutenez, zazpi hilabete baino lehen idatzi beharko da Erguin auzoarako proiektua. 12 milioi eta erdi erabiliko dira jardun horretan.

Protestak San Juan de Diosen



San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoko garbitzaileak protestan dabiltza. Zuzendaritzak onartutako lan hitzarmenean, desadostasuna sortarazi duten hainbat puntu daude. COMPASA gerbiketa enpresako langileen iritziz, ez dute lan

hitzarmena sinatzeko asmorik eta enpresak jarrera aldatu arte egingo omen dituzte kale bilkurak. Egunero bi bilkura egitea erabaki dute. Enpresaren esanetan, berriz, hitzarmena sinatzen ez badute, ez dute urteko soldata igotera jasoko.

AEDk zuzendaritza erdia berritu

AEDk elkarteak zuzendaritza batzordeko lau kide berri izendatu ditu 1999. urteari dagokion batzar orokorrean. Batzarra joan den asteazkenean egin zuen AEDk.

KIDE BERRIAK

Bederatzi lagunek osatzen dute AEDren zuzendaritza batzordea. Bertako kide berriak ondokoak dira: Miriam Txintxurreta, euskara irakaslea eta euskalkiak lantzen dituena; Igor Leturia, AEDn teknologia berriak indartuko dituena.

Horiek aurpegi berriak dira, baina AEDren aspaldiko bi ezagun ere etxera bueltatu dira: alde batetik, Jaso-

ne Mendizabal, beste kide berria, Julen Arexolaleiba dugu, urte askoan AEDn izandakoa eta Euskal Herrian soziolinguistikoa pisu handiko aditua.

AURRERA BEGIRA

Barne osaketa indartu horrekin, aurtengo egitasmoei gogoaz aurre egiteko moduan dago AED.

Gazteekin eta euskaldun berriekin egiten ari diren lanari pisu handiagoa emateko asmoa du AEDk.

Gainera, Debagune eta Topagune euskara elkarteekin harremana indartuko du herriko euskara elkarteak.



Francisca Blancok eta Juan Cruz Ramirezek martxoaren 4an ospatu zituzten urrezko ezteiak. Errioxako San Vicente de la Sonsierrako

elizan izan zuten meza, ezkondu ere hantxe egin ziren eta. Bazkaltzera Harora joan ziren, Terete jatetxera. Eguna pasatu ondoren Arrasatera



etorri ziren berriro. Izan ere, urte mordo daramate hemen: Franciscak 37, eta Juan Cruzek 42. Zorionak, eta segi elkarrekin!



GOENKALETIK ARRASATERA

Martxoko azken aurreko astean kultura astea egin zuten Arrasateko Institutuan. Besteak beste, Ainhoa Aierbe edo egunero pantaila txikian ikusten duzuen Goenkaleko Leonor etorri zen hitzaldia ematera. Ikasleekin ere aritu zen solasean, eta argi utzi zuen neska jator askoa dela.



ZORIONAK!

Joxe Azkaratek 90 urte bete zituen martxoaren 24an, eta ederki asko ospatu zuen urtebetetze eguna, familiarekin. Arantzazun meza entzun

zuten hilaren 25ean, eta ondoren, majo bete zuten sabela Unzueta jatetxeko bazkarian. Zorionak eta segi umore on horrekin, Joxe!



KANTU KANTARI

Leporaino bete zen Amaia antzokia larunbatean, Debagoieneko eskola arteko abesbatzen XIII. topaketak zirela eta. 706 abeslari gaztek erakutsi zuten kanturako trebezia. Zeinek daki etorkizuneko Pavarotti edo Ainhoa Arteta horien artean ote dagoen?

IZENAK

Jose Ramon Elortza

Euskalan elkarteko lehendakari berria da Jose Ramon Elortza. 55 urteko arrasatear honek 11 urte daramatza Ikerlanen lanean. Duela lau urte sortu zen Euskalan, lan mundua euskalduntzeko asmoarekin. Jose Ramon bera izan zen elkarteko lehen lehendakaria, eta azken bi urteotan Esteban Laskurainek bete du kargu hori.



KAIXO KARAPAIXO!

Garizuma sasoiak gaudela eta, arrasatearrok tentaziora eramaten gaituen aspaldiko ohitura bat berpiztu da urtero bezala: karapaixoa. Joan den ostiralean harro asko erakutsi zigun Bedoñako Gregori Markaidek bere perla. Egia esan, ez du batere itxura txarra!



AITTITTE-AMAMEKIN JOLASEAN



Arrasate Ikastolan kultura ekitaldiz jositako astea izan dute. Ostegunean, haur hezkuntzako ikasleek aittitte-amamen bisita jaso zuten, eta izerdi ugari bota zuten guztiek ere elkarrekin dantzan eta jolasean. Hautzaroko sasoiak gogoratzeko modu polita, dudarik gabe.

JOSERRA AGIRREURRETA (LEINTZ-GATZAGAKO ALKATEA)

“Nik lau urterako harri

Musakolako Osinaga base-
rrian jaio zen arren, Gatzagan
daramatza zazpi urte. Lau
gehiago Arrasateko Udal Eus-
kaltegian, euskarazko esko-
lak ematen. 1994tik 1998ra
zuzendari karguan egon zen,
gainera. Orain konpromiso
berezia hartu du lau urtera-
ko, bera baita Gatzagako
alkate berria, ia-ia mito bila-
katu den Eugenio Otxoa
Gerra-ren lekua hartuz.

— Gustura euskarazko
eskolak ematen?

— Bai. Beti esan izan dut
amari esker bizi naizela, bi zen-
tzutan: batetik, hizkuntza eman
zidalako eta hortatik bizi nai-
zelako, eta bestetik, bizia eman
zidalako eta horri esker bizi
naizelako. Gustuko lana dut.

— Nola bateratzen duzu
Gatzagako alkatetzarekin?

— Gatzagako udaletik ez
didate momentuz oso gogor
egin, eta ni ahal dudan guztia

jasotzen ari naiz. Dena dela,
udalean dut orain nire zorra
eta konpromisoa.

— Zergatik onartu duzu
alkate kargua?

— Momentu batean Otxo-
ari baiezkua eman nion zine-
gotzi izateko eta nire ustez, udal
baten barruan talde on batek
funtzionatzen badu, ez da hain
garrantzitsua buru zeinek egi-
ten duen. Beraz, ni naiz alda-
bak jotzen joan behar duena,
baina talde bat dut atzetik.

— Zenbat lagun zaudete
lantalde horretan?

— Zazpi lagun gaude,
Otxoa bera barne, Internet
bidez eta harremanetan
egongo baikara. Batzor-
deburuak hamaboste-
ro elkartzen ziren
orain arte, eta osoko
bilkurak hilean
behin egiten geni-
tuen. Orain aste-
ro elkartzen

gara, nik gaiei pixka bat esku-
hartu arte eta gaiak gertuago-
tik segitzeko.


— Zergatik joan zinen
Gatzagara bizi izatera?

— Arrasatetik irteteko
gogoia nuen. Hiri bat iru-
ditzen zait, eta ez
nengoen gus-
tura. Etxe
apaltxo bat
erosi genuen
Zigorrolan,
baina beti-
danik izan
dut baserri-
rako

gogoia. Gatzagan etxe bat ikus-
tera joan ginen, baina lau lagun
ginen etxe bila eta nahiko txi-
kia ikusten genuen. Eugenio
Otxoak bultzatu gintuen orain-
go etxea hartzera.

— Zer espero duzu eskai-
niko dizula alkatetza kar-
guak?

— Nik ez dut ino-
lako pretentsiorik, ez
noa karrera politikoa
egitera. Epe mugatu
baterako gaude, lau
urterako, eta denbo-
ra tarte horretan
oso gau-
z a



“Gatzaga bezalako herriek
mankomunitate
indartsua behar lukete.”

u dut konpromisoa”

zehatzak baino ezin daitezke egin. Alde horretatik, ez naiz bat ere utopikoa. Nahikoa dut aurrera eramandako gauzekin nire ingurukoak eta herritarrak pozik daudela jakitea.

— Zeintzuk dira Gatzagaren arazo nagusiak?

— Errepideak izugarriko lanak ematen dizkigu. Bizi kalitate handiko herria izan beharko lukeena, trafiko handiko errepide batek zeharkatzen du, eta horrek zeharo baldintzatzen du. Garraio publikoa ez zaigu iristen, gainera. Bestetik, berri, herri

batek beti behar du pizgarriaren bat aurrera egiteko. Bailerako herriei begiratuta, izugarri industrializatutako herriak baino ez dira ikusten, eta Gatzaga polit eta eder nahi dute bere pagadiekin. Hori mantentzeak kostu bat du, eta norbaitek ordaindu egin behar du, European egiten den eran. Bestela, Gatzaga bezalako herrien iraupena kolokan ikusten dut nik.

— Bailerako herriein alderatuz, ez dago baztertuta?

— Gatzaga bezalako

herriek mankomunitate indartsu behar lukete. Zerbitzu komun batzuk behar lituzte Elgeta, Antzuola... bezalako herri txikiekin batera. Gure udala txikia da, baina arazoak ere oso diru gutxirekin konpondu behar izaten ditu.

— Zer eskain dezake Gatzagak?

— Gatzagak hazkunde natural bat du, eta lehenik horri erantzun behar dio zerbitzuak, etxebizitzak... eskainiz. Arazoak herri txiki baten humanizatu egiten dira, eta hori da, paisaje naturalaz gain, Gatzaga

gak eskain dezakeena. Momentu on eta txarretarako elkar-tuago egoten gara.

— Zer egin du ondo eta zer gaizki Eugenio Otxoak?

— Oso balantze ona egingo nuke. Ilusioz gainezka bizi da Eugenio, eta horrelako pertsonak derrigorrezkoak dira aurrera egiteko; baina bidean jendea frustratzeko arriskua dago. Politika ilusionatzaileen arriskua da hori. Oro har, baina, txapela kentzeko moduko gizona da. Ezinezkoak diruditen proiektuetan ere konstantziari eusten dio. ■



GRUPO **RK UZ** 1950-2000

50 urte







Araba Etorbidea 5
Tel. / Faxes: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20
Tel. / Faxes: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Mitarte 3
Tel. / Faxes: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Asunción, 1
Tel. / Faxes: 943 79 10 97
ARETXABALETA

Familia negozioia eta kalitatea nagusi

Mendea daramate Lasagabasterrekoek jantziak eta bestelakoak saltzen Arrasaten. Baina Pedro Lasagabasterrek Aretxabaletan ireki zuen denda 1898an.

Orduan oihalak, jatekoak eta abarkak saltzen zituen etxe azpiko dendan. "Saldutako lehenengo gauza umeentzako larruzko abarkak izan ziren; Aretxabaletako baserritako familia bati". Ordutik urte asko igaro dira eta Lasagabasterarrak Arrasatera etorri ziren. Hori 1956an izan zen eta Erdiko kalean ireki zuten denda. Euren espezialitatea kortinak eta alfonbrak ziren, baina jantziak ez ziren falta izaten. Eta garai hartan hasi ziren Burberry izeneko jantziak josten. Hau da Lasagabasterren jantzien izenetako bat. Baina ez da bakarra.

IZEN HANDIA

Kalitatea zaindu dute betidanik Lasagabasterren eta hori dela eta, izen handiko diseinatzaileen jantziak dituzte. Amaia Arzuaga, Burberry, Antonio Miro eta Adolfo Domingez dira horietako batzuk. Dorleta eta Miren Lasagabasterrek Adolfo Domingez ezagutzeko parada izan zuten "hasi zenean bera aritzen zen dendarik denda bere jantziak saltzen eta guk hemen ezagutu genuen".

Zerkaostetako lokalak 1.000 metro karratu ditu, gutxi gorabehera, lau solairutan banatuta. 1972an ireki zuten

Emakumezkoak, gizonnezkoak eta gazteak janzteaz gain, etxerako jantziak ere saltzen dituzte, bai eta altzariak ere. "Gehienetan Espainiatik ekartzen ditugu gauzak; kalitate ona dago urrutiago joan barik".



Joni, Dorleta eta Miren ari dira euren anai-arrebekin lanean dendan.

ANAI-ARREBAK

Familia negozioia da Lasagabaster. "Gure aitak, Ferminek eta bere arreba, Mariluk handitu zuten negozioia eta gaur egun zazpi anai-arrebok ari

gara lanean hemen". Mirenek 21 urte daramatza etxeko negozioa zaintzen, Jonik 15 eta Dorletak 13. Baina eurez gain, hogeitik gora lagun ari da Lasagabasterren lanean.

"Mondragoetarrak erosle onak dira. Gurera betiko bezeroak etortzen dira. Urtetan etorri izan dira eta aitona-amonak etortzen ziren bezala, gurasoak eta euren seme-alabak ere etortzen dira. Normalean erdi edo goi mailako bezeroak izaten dira. Gehienetan gainera, emakumeak etortzen dira erostera".


ETORKIZUNA ETXEAN

Gaur egun Zerkaosteta bat, bi eta zazpigarren zenbakian daude Lasagabasterrekoak. Orain dela ehun urte baino gehiago familiako negozio bezala sortu zen eta oraindik ere "familiako negozioa" dio Dorletak: "Gure aitak eta bere arreba negozioia handitu zuten eta azken denda gazteena izan da. Hemendik aurrera daukagunari eutsi behar eta guri lagatakoa aurrera ateratzen saiatuko gara, gure bezeroen laguntzarekin".



Lasagabaster Gazte moda • Zerkaosteta, 7 • Tel.: 943 79 86 14
Lasagabaster Jantzi denda • Zerkaosteta, 1 • Tel.: 943 79 13 55
Lasagabaster Altzariak • Zerkaosteta, 2 • Tel.: 943 79 30 18

LKS Taldeak ia 3.000 milioi pta. fakturatu zituen iaz



1998tik %47 igo du bere fakturazioa LKS Taldeak. 2.879 milioi pta. fakturatu zuen 1999an. Datuak joan den asteartean eman zituzten jakitera Bilbon emandako prentsaurrekoan. MCCren Ingeniaritza eta Kontsultoretza sailetan dagoen Taldeak 1999an 1.500 milioi pta. ko lan eskaerak izan zituen eta horren arabera, 2000. urterako 3.420 milioi pta. ko lan eskaera aurreikusi dute arduradunek.

Izan ere, LKSren eskaintza zabaldu egin da azken urtean eta atzerrian ere hasi da lanean.

NEGOZIO ARLO BERRIAK

LKS Intelcom izan da iaz sortu zen adarretako bat. Azpiegitura eta komunikazioen arloan aritzen da lanean eta LKS Ingeniaritza eta Enyako Telefonía eta Sareen sailaren bategiteak sortu da LKS Intelcom. Bere lana bulego eta industrien instalazio orokorrak egitea da eta aldi berean, sistema elektronikoa eta informatikoa erantzuna ematea.

ZABALKUNDEA

LKSk Euskal Herrian dituen egoitzez gain, Galizan, Madrilen, Errioxan eta Mantxako Gaztelan ere baditu egoitzak.

Baina horrez gain, Montevideon esaterako, LKSur eratu du hango bazkideen laguntzarekin. Sao Pauloko beste enpresa batekin ere ari da lanean eta Mondragon Sistemas de Informacion enpresarekin batera Frantzia lan egiteko eskaintza ere lortu du.

Euroa

Noiztik aurrera sinatu beharko dira kontratuak eurotan?

2002. urteko urtarrilaren lehenetik aurrera, baina arrazoi teknikoak tarteko, aurrez hasia komeni da, batez ere kontratuak epe luzerako baldin badira. 2001. urtera arte kontratuak pezetatan zein eurotan egin ahal izango dira, baina herrialde bakoitzeko dirutan eginez gero, euroa martxan jartzean kontratua ez dela aldatuko esaten duen klausula jasotzea komeni da.

Euro baten balioa

166,386 pta

Fagorrek ia 20.000 milioi pta gehiago fakturatu zituen iaz

118.740 milioi pta. ko fakturazioa izan zuen Fagor Elektratsnak enpresak 1999an, aurreko urtean baino %19,3 gehiago. Izan ere, Espainian duen negozioa gehitu egin du eta bere salmentak %20 igo dira. Guztira 77.385 milioi pta. ko salmentak egin ditu estatuan.

NAZIOARTEKO SALMENTAK

Enpresak "2003ko proiektua" izeneko plangintza aurkeztu zuen bere azken batzar orokorrean eta han jasotzen denez, nazioarteko merkatua areagotzeari lehentasuna eman nahi zioten. Honela nazioarteko fakturazioa Fagor Elektratsnak enpresaren salmenten %50 izan dadin. Hori kontuan izanik, aurtengo datuak pozik egoteko modukoak direla esan genezake.

Izan ere, 41.355 milioi pta. ko salmentak izan dituzte nazioartean, 1998an baino %17,5 gehiago; hau da, fakturazio guztiaren %35.

Datu hauen guztien gainera irabaziak azpimarratu beharko ditugu. Fagor Elektratsnakek 1999an 5.178 milioi pta irabazi zituen, aurreko urtean baino %23,2 gehiago. 3.000 milioi pta. baino gehiago inbertitu ditu eta 2.600 milioi pta gehitu behar zaizkio, Wrozamet enpresa poloniarra erosteko erabilitakoak, hain zuzen ere.

ATZERRIAN ERE BAI

Wrozamet enpresarekin Fagorrek Polonian saltzeaz gain, Alemanian, Txekian, Hungarian, Letonian, Lituanian eta Estonian ere saltzen du.

Baina Marokon ere badu lantegirik. Han hozkailuak, berogailuak eta garbigailuak egiten dira. Argentinan ere saltzen dute, baina linea zuria krisian dago herrialde hartan eta emaitzak ez dira nahi bezalakoak izan, Fernando Gomez-Acedo Fagor Elektratsnakeko zuzendari orokorrak azaldu duenez.

Datu hauek guztiak joan den asteazkenean eman zituzten Gomez-Acedok eta Jabier Gantxegik, Fagor Elektratsnakeko kontseilu errektoreko lehendakariak, Donostiako Kurasaalean.

2000. urterako hainbat lan ditu Fagorrek egiteko: 2001-2004 plan estrategikoa erabakitzea, Garagartzako planta zabaltzea eta Gasteizko bildegia birmoldatzea, besteak beste.

Guztiok kabitzeko modu

Irudi tipikoa da. Guztiok dugu gogoan, mila aldiz ikusi dugu eta: haur eta gazte atzeratuak eskulana egiten, txintxo-txintxo. Baina errealitateak ez du zertan eskema zurrun horiek jarraitu. Haurtzaroan, besteekin batera garatzen dira, bakoitzaren erritmoaren arabera. Baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iristean, neska-mutil hauek gero eta hurbilago dute lan mundua, eta horretarako bakoitzari bere ibilbidea diseinatu behar zaio. Eta orduan, zer?

Asmo eta hitz onak ondo dauden arren, ez dira nahiko: ekintza bihurtu behar dira. Eta orain, Arrasateko ikastetxe batek lortu du bere asmo on lortpen bihurtzea.

Arrasate Ikastolari buruz ari gara. Ikastola honetan, legeak agintzen duen moduan, atzerapenen bat duten hiru ikasle baino gehiago daudenez, DBHko gela berezia dago, "Zereginen Ikaskuntza Gela". Han egoten dira Larraitz, Aintzane, Amaia, Rafa eta Iñaki. Larraitz ez beste guztiak 19 eta 20 urte bitartekoak dira. Horrek ikasketak bukatzeko zorian daudela esan nahi du. Lan mundua dute zain eta orain, etapa horri ilusioz ekiteko beste arrazoi bat dute.

Izan ere, urtarrilean lortu zuen ikastolak gure inguruan beste inork lortu ez duen erronka: enpresa normalizatu batekin praktika hitzarmen bat sinatzea. Gazte horiek lan esparruan eta gizartean segurtasunez txertatzea da akordioaren helburua.

Aintzane Kintana, Arrasate Ikastolako 19 urteko ikaslea, izan da akordioaren eragina sumatu duen lehena. Goiza udaletxean ematen du Aintzane, Hirigintza sailean lanean. Dokumentuei seiloak ipintzen dizkie eta posta banatzen du bulegoz bulego. Maiatzeko



Iñaki Ganboa Gureak tailerreko langile bihurtuko da datorren urtean.



Aintzane Kintana, Hirigintzako bere mahaian.

ra arte izango da hant praktikak egiten. Ikastolatik irteten denean, bere kurrikulumean izango ditu praktikak horiek, beste edozein ikasle bezala. "Oso polita da nire lana", dio Aintzane irribarre zabal batekin. Maiatzean, Amaia Mora ikaskidea hasiko da udaletxean, eta bera ere oso ilusionatuta dago: "Ordenadorean ibiltzea gustatuko litzaidake", esaten du, urduri baina pozez gainezka.

LAN PERFLA

Iaz, baikorrenak ere ez zuen

egoera hau posible izan zitekeenik pentsatuko. Aintzane Down sindromea du, eta hori dela eta, lantegi berezi batera joango zen praktikak iaz izan balira. Hitzarmenak beste ate bat zabaldu die, Aintzane, Amaia, Iñakiri, Rafari...

Ikasle hauen atzean Arantxa Urrutia eta Hirune Iribecampos daude, ikastolako gazte horien tutoreak. Euren esanetan, "oso zaila da ikasle hauen lan perfla aurkitzea. Horretarako, oso inportantea izaten da lana ikasle bakoitzaren ezaugarri eta ahalme-

Uko lan mundua

netara egokitzea. Adibidez, ikasle baten familiak ilea-paindegi bat badu, ikasle hori lan horrekin zerikusia duten zereginetan trebatzea erraza izango da”.

Bat datoz Institutuko zereginen ikasgelako arduradunak, Espe Garai eta Mikel Zubizarreta: “Irakasleok pistak eman ditzakegu, ikasle bakoitzaren mailaren arabera. Atzerapen guztiak ez dira berdinak, eta maila altua duten ikasleen kasuetan, ikasketak amaitu eta lantegi arruntetan probatzea gomenda diezaiekegu: horrela, esperientzia ona ez bada, badakite Gureak lantegien aukera hortxe izango dutela. Izan ere, institututik pasa diren bi ikasle izan dira enpresa normaletan lanean, baina atzerapen maila txikia zuten.”

Hala ere, egoera hori ez da arrunta izaten: “Familia gehienek Gureak lantegiak aukeratzen dituzte, lasaitasuna ematen dietelako”, esaten dute. Familiak ez ezik, ikasleak ere pozik joaten dira lantegi horietara. Iñaki Ganboak, adibidez, 20 urte ditu, eta Gureaken dihardu praktikak egiten. Datorren urtean, bertako langile bihurtuko da Iñaki, eta oso gustura dago.

“Oso inportantea da lana ikasleen ezaugarrietara egokitzea”

BESTE AUKERA BATZUK

Hala ere, batzutan, bai familiak, bai ikasleak, beste zerbait probatu nahi dutela argi izaten dute. Aukeratzeko egoeran izan daitezten, oso preskakuntza konpletoa ematen zaie ikasle hauei: bai Arrasate Ikastolan, bai Institutuan, lantegiak, administrazio lana, sukaldaritza eta beste hamaitakoxo gauza egiten dituzte.

Edozein bide aukeraturik, ateak zabaltzea izan da begiraleen apustua: “Gazte hauek gizartean duten parte hartzea normaltzen doan heinean, beste esparru batzuetan posibilitateak indartuko direla espero dugu”, diote Arantxak eta Hirunek. Eta, zentzu horretan, Aintzane Kintanak edo Amaia Morak izango duten esperientzia oso positibotzat jotzen dute euren irakasleek: “Neska-mutil hauek era honetako lanak egiteko kapaz direla ikusten den neurrian, hurren-

go datozenek aukera zabala izango dute”. Bideak zabaltzea da Institutuko begiraleen nahia ere. Baina ez da batere erraza ikasleak han sartzea: “Ikasleen mailak zeharo baldintzatzen du bere etorkizuna. Enpresa arrunt batean lan egin behar badute, nahiko maila altua izan behar dute, bestela, jendeak ez ditu ondo hartzen”, aitortzen dute.


Beharbada, lan esparru askotan, atzeratuek egin dezaketenaren ezagutza faltagatik ixten zaie atea. Gauza ez direla eta, aukera ukatzea da jarre-rosa erosoena, ezta? Gehienok pentsatu izan dugu hori noiz-bait. Eta gero ezusteak etortzen dira: “Normalean kalean ikusten dituzu eta eurekin harremana izan arte, ez dakizu zertarako gai diren. Horregatik, Aintzaneekin lan egitea oso positiboa izan da”, dio udaletxean Aintzanearen sail berberetan dagoen langile batek. Eta

egia da: askotan ezin da jakin gazte hauek zelako maila eman dezaketen, ematen duten arte. Begiraleek ere ezuste galanta izan zuten Aintzaneekin: “Hasieran, berarekin egon behar genuen, bere lana nola egin esateko. Baina gero, konfiantza hartu zuen eta “ospa hemendik, utzi niri bakarrik!” esanda bidali gintuen”, gogoratzen du Arantxa Urrutiak.

BELDURRAK BAZTERTU

Aintzane ondo etorri zitzaion praktikekin hastea: beldurra alboratu eta ireki egin zen. Amaia ere lotsati samarra izaten da ezezagunekin. Bera ere joango da udaletxera: “Eurentzat oso aberasgarria izango da lan hori, jendearekin tratatzen ikasi behar dutelako. Beldur hori gainditu behar dute”, esaten dute irakasleek.

Badirudi guztiok dugula hainbat beldur gainditu beharra. Irakasleek ere badituzte euren mesfidantzak. Udaletxeko ateak zabal-zabalik izan dituzten arren, leku guztietan ez da berdina izan. Beste askotan, enpresak gazte hauek hartzeko prest bazeuden ere, ez zuten eurentzako moduko eginbeharrik. Izan ere, lana euren ahalmenetara egokitzea oso inportantea da, eta egoeraren jabe izan behar badute, eguneroko lana komeni zaie, oso mekanikoa eta ordutegiz arautua. Baina horrelako asko dago. Ea bada, geuk ere gure ahalegina egiten dugun, eurak dagoeneko ari dira eta. ■



Amaia Mora maiatzean hasiko da Udaletxean praktikak egiten.

Leire Kortabarria

Ikasketa teknikoak: beste hezkuntza mota bat

Ikasketei buruz hitz egitean, unibertsitatea etortzen zaigu burura berehala. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta batxilergoa amaitu duen ikasleak horra bideratu ohi baititu pausok.

Bizimoduak eta eraldatzen doan gizarteak, baina, ohiturak eta pentsakerak aldarazi dituzte.

Unibertsitateko ikasketak amaitu eta lanera irtetean, ez dago lekurik hainbeste unibertsitariorentzat. Horren aurrean, gero eta gehiago, lanaren eskarira egokitzeo ikasketa berriak antolatzen dira.

Inguruan ere halaxe egin da. Honen adierazle dira hezkuntza teknikoaren barruan aukeran dauden ikasketak. Unibertsitateko edozein ikasketa baino laburragoak izateaz gain, enplegura begira, nahiko eraginkorrak dira. Halaxe diote adituek.

Mondragoe eta inguruetan Arizmendi Kooperatiba Elkarteak eta Arrasate-Aretxabaleta Institutuak eskaintzen dute mota honetako heziketa.

Honela bada, Arizmendiko Felix Ormaetxearekin izan gara berbetan. Bera, HETE-Leko (Hezkuntza Teknikoko Elkarte) presidentea izan da hamar urtez eta orain Arizmendi Koop. E.ko zuzendari nagusia da.

Ormaetxearen ustez, "komenigarria da jendeak jakitea zer den hezkuntza teknikoak. Eskaintza aberatsa dagoela hezkuntza mota honen barruan. Nire ustez, hezkuntza teknikoak alternatiba erabat aberatsa da eta salbuespenak salbu, enpleguari begira esan genezake zenbait ikasketa unibertsitarioa baino askoz ere interesgarriagoa dela. Oraindik badago biga-



Ikasleek praktikak egin behar dituzte derrigorrez.

rrren mailako eskaintza delako uste duenik.

Baina ez da horrela, ezta gutxiago ere. Bai 16 urteko ikasleentzat zein batxilergoa bukatu dutentzat, irtenbide bat da eta halaxe jakinarazi beharko lieke ikastetxeetako orientatzaileek gazteen gurasoei".

Arrasate-Aretxabaleta Institutuko Heziketa Zikloetako zuzendari ordeak ere hala uste du. Institutuan ere mota honetako ikasketak ugari egin dira azken urteotan. Pablo Txintxurretaren ustez, "orain mota honetako ikasketak egiten dituen gaztea-

rentzat askoz ere errazagoa da lana lortzea.

Industria arloan, bereziki, enpresen eskarera kalerako eskaintza baino handiagoa da. Gai diren espezialistak falta dira. Esaterako, ikasle asko lanean hasten da ikas-ten ari den bitartean.

Esan beharra dago, era berean, emakumeek ere gero eta leku handiagoa dutela bide hau aukeratuz gero. Guri enpresetatik emakumeak behin baino gehiagotan eskatu izan dizkigute. Mota honetako ikasketak eginez lehen baino askoz errazago aurkitzen dute lana".

Titulu berri ugari sortu dira azken urteotan

ERALDAKETA

1990. urtean sortu den hezkuntza sistema berria dira ikasketak teknikoak. Ordura arte, LH moduan ezagutzen genuena zegoen, baina oinarriko heziketa gaintzen ez zutenek egiten zuten jeneralean.

Orain bestelakoa da egoera. Erdi mailako hezkuntza teknikora jotzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gaintuta izan behar da. Goi mailako hezkuntza teknikora jotzeko, berriz, batxilergoa gaintu beharra dago aurrenik.

Beste aldaketa bat ere izan da. Orain arte, ikasketa teknikoekin lotutako titulu bakanak batzuk bakarrik zeuden, 30 bat inguru. Baina orain 100 bat eskaintzen dira hezkuntza teknikoaren barruan. Ikasketak hauen barnean praktikak egitea derrigorrezkoa da, gainera.

Felix Ormaetxeak kontatu digun moduan, "titulu berri hauek dinamikoak dira. Hau da, lan merkatuaren eskaerara moldatzen dira. Esaterako, iaz ematen ziren zenbait ikastaro, dagoeneko ez da eskaintzen. Enpresen beharretara egokitzen jakin behar da".

Institututik ere merkatuaren azterketa egin dute mota honetako ikasketak eskaintzeko. Pablo Txintxurretak jakinarazitakoaren arabera, inguruko enpresetara jo dute, baita hainbat erakundetara ere. "Merkatuan dauden beharrak jakinda zehazten da zein ikasketa mota eskaini. Era berean, epe baten ondoren, sortzen diren behar berrietara egokitzen dira ikasketak".

Hori jakinda, hortxe dago bestelako hezkuntza mota bat aukeratzeko esparrua. Denborak aldatuz doaz eta argi dago horretara egokitzen joan beharko dugula.

Debagoieneko Bigarren eskuko autoen II. Erakusketa

ARRASATE • Apirilak 7, 8 eta 9

Arruena Parkea (Hiper Eroskiren ondoan)

Ordutegia: 10:00-20:00 (Igandea: 10:00-14:00)

100 auto baino gehiago!



Antolatzaileak

aldibi

ION CITROËN

CHAPIME CITROËN
Tailerrak

EKOMOBIL PEUGEOT

KANPAZAR
FIAT

MECA RENAULT

MUGARRI Ford

TALLERES OLA OPEL

SEAT UDALAITZ, S.A. AUDI VW

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Ai, ai, ai!

Azkenean erori egin zen; ez pentsa "ai" horretan gelditu zenik. Leya eta Etxerat Taberna taldeen arteko partidako argazkia duzue. 4 eta 6 irabazi zuen Leyak.

GOL ZAPARRADA

Aldibi, iazko talde txapelduna, berriz agertu da. Joan den asteburuan abisatu egin zigun. 10 gol sartu zizkion Alai Gozokiak taldeari. Eta aste honetan, sekulako jipoia eman dio Makairi. 20 gol sartu dizkio B multzoan hasita hirugarren dagoen taldeari. Badirudi txapeldunek euren titulua defen-

datu nahi dutela eta lehenengo itzulia amaitzeko partida gutxi falta diren honetan, jokari beteranoak ez daude amore emateko prest.

Aste honetan Sas T taldearen aurka jokatuko dute Aldibikoeak. Larunbatean goizeko 08:50etan izango da hori. Norgehiagoka erraza Aldibikoen tzat. Sas T taldekoak multzo-

ko azkenak dira eta bien arteko puntu aldea izugarria da; 23 ditu Aldibik eta Sas Tk, berriz, 7.

Dena dela, sorpresak ere izaten dira eta agian, Sas T izan daiteke sorpresa Aldibikoen tzat.

Dirua jokatzekeo modu arriskutsua da, baina tira, denetik gerta daiteke.

HIRU BAKARRIK FALTA

Hemeretzigarren jardunaldira iritsi gara eta dagoeneko hiru aste baino ez dira falta lehen aldiko partidak amaitzeko.

Hori dela eta, B multzotik 3 talde sailkatu dira dagoeneko: Dribling, Timofol eta IKP. B multzotik, berriz, lehenengo hirurek hanka bat baino ez dute hurrengo aldian.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

AT Lokala 3 - You Know 7
 Kanpazar Har. 7 - Giraldirilla Con. 3
 DA Iriztu 3 - Kobate DKB 3
 AC Surkos 5 - Xhasss Ugarte 2
 Fraguél Gol 6 - Irati STS 4
 Sau. Scream 3 - Ume Zikinak 5
 Goma 2 1 - Sokoakoak 0
 K Alpagat 1 - Atxanta el Ret. 0
 Etxe Mobil 1 - Bar Nuevo 0
 Betrayér 1 - Lontxo Tab. 0
 Orlando Piratas 1 - Totem

B taldea

Makai 3 - Aldibi 20
 Garaje Oscar 8 - Serengeti 3
 Aurrera Bolie 5 - Kamasutra 4
 IKP 5 - Dribling 4
 Timofol SMD 6 - Borrock & Roll 3
 AKTA 7 - Dribling 8
 KJ Basati 10 - Makanudos 6
 Leya 4 - Etxerat Tab. 6
 Txeyenex 3 - Branka Tab. 7
 Alai Gozokiak 1 - Sas T 2
 Potroak 1 - EPEH 0

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldé	Aurk.	Guzt.
K. Alpagat	18	13	3	2	75	54	29
You Know	18	14	1	3	105	59	29
Orlando	18	13	2	3	103	54	28
Kanpazar Harrobia	18	12	2	4	70	47	26
AT Lokala	18	12	1	5	85	54	25
Irati STS	18	11	1	6	103	68	23
Ume zikinak	18	10	3	5	94	59	23
AC Surkos	18	10	3	5	87	59	23
Betrayer	18	11	1	6	74	53	23
Sau. Scream	18	10	3	5	65	48	23
DA Iriztu	18	9	4	5	69	75	22
Goma 2	18	11	0	7	76	56	22
Kobate DKB	18	10	1	7	80	59	21
Xhasss Ugar.	18	10	1	7	100	79	21
Fraguel Gol	18	10	0	8	76	79	20
Giraldirilla Con.	18	4	0	14	53	158	8
Etxe Mobil	18	3	1	14	51	84	7
Atxanta el Ret.	18	2	2	14	33	118	6
Totem	18	3	0	15	18	38	6
Sokoakoak	18	2	1	15	23	50	5
Bar Nuevo	18	1	0	17	21	92	2
Lontxo Tab.	18	0	0	18	0	18	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldé	Aurk.	Guzt.
Dribling	18	15	1	2	88	40	31
Timofol SMD	18	14	2	2	114	50	30
IKP	18	13	1	4	97	64	27
Kamasutra	18	12	2	4	72	45	26
Branka Taberna	18	12	2	4	129	79	26
Aldibi	18	11	1	6	91	71	23
Etxerat Tab.	18	9	4	5	87	68	22
Txeyenex	17	9	2	6	73	74	20
Serengeti	18	9	2	7	52	58	20
KJ Basati	18	10	0	8	99	97	20
Garaje Oscar	18	7	5	6	78	63	19
Aurrera Bolie	18	8	2	5	51	62	18
Potroak	18	7	3	8	54	54	17
AKTA	18	7	1	10	70	64	15
Leya	17	6	2	9	57	67	14
Borrock & Roll	18	5	2	11	71	96	12
Makanudos	18	5	1	12	57	120	11
Alai Gozokiak	18	3	3	12	50	82	9
EPEH	18	4	1	13	43	54	9
Makai	18	3	2	13	61	136	8
KK Jauriaritzari	18	4	0	14	29	32	8
Sas T	18	3	1	14	52	99	7

ARRASATE  **KIROLAK**
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 19. jardunaldia

Iarunbata, 1

Zaldibar	Epaillea
08:50 Aldibi - Sas T	(Fraguel Gol)
10:00 Betrayer - Fraguél Gol	(Aldibi)
11:00 Komando Alpagat - Da Iriztu	(Betrayer)
12:00 Borrock & Roll - AKTA	(DA Iriztu)
13:00 Irati STS - Saukelu Scream	(AKTA)
14:00 You Know - Ume Zikinak	(Irati STS)
15:00 Kamasutra - IKP	(Ume Zikinak)
16:00 Kobate DKB - Etxe Mobil	(Kamasutra)
17:00 Dribling - KJ Basati	(Etxe Mobil)
18:00 Goma 2 - Orlando Piratas	(KJ Basati)
19:00 Etxerat Tab. - Txeyenex	(Goma 2)

Iturripe A	Epaillea
15:50 Makanudos - Leya	(Branka Tab.)
17:00 Branka Tab. - Alai Gozokiak	(Makanudos)

igandea, 2

Zaldibar	Epaillea
12:00 Serengeti - Aurrera Bolie	(Makai)
13:00 Makai - Potroak	(Serengeti)

Atsedena: AT Lokala, Kanpazar Harrobia, Giraldirilla Conection, AC Surkos, Xhasss Ugarte, Garaje Oscar, Timofol SMD.

ERRUGBIA Mendean hartu



Aurrekoan jipoitu egin zituzten arren, joan den asteburuan kontra-koa egin zuten Patxi Gorosabel eta Joseba Maidaganen mutilek.


Bilboko Universitario 15 taldearen aurka aritu ziren eta hasieran partida parekatua egon zen arren, mondragoetarrek aurreratu egin ziren entsegu batekin. Lehen zatia 15 eta 9 amaitu zen.

Bigarren zatian etxeko taldeak aukera ugari izan zituen eta azkenengo hamar minutuetan partida gogortu egin zen. Baina garaipena etxean gelditu zen.

Aste honetan Elorriora joango dira senior mailakoak eta Derbia jokatu dute, beraz. Garaipena ondo legoke aurretiko tokietan segitzeko.

Ikusi egin behar, ordea.

ESKUBALOIA Azkenean gainbehera



Arrasate eta Almen gazte taldeek jokatu zuten

Iturripen eskubaloiko derbia. Lehen zatian etxekoak aurreratu ziren, baina 13. minutuan Almenek gola lortu eta gora egin zuen markagailuan eta 13 eta 9 amaitu zen lehen zatia. Almenek lortutako 9 goletatik 8 kontraerasoan izan ziren eta horrek zer esana sortu zuen kantxan.

Bigarrenean Arrasatek huts egiten segitu zuen. Almenek berdinketa lortu zuen. Bigarren zati horretan, Almeneko taldea izan zen nagusi, eta lortu zituzten 26 goletatik 21 kontraerasoz izan ziren. Bukaeran, Arrasate 19 eta Almen 26.

Aste honetan Zumarragan arituko dira eta etxean jokatu dute seniorrek, Aierruren aurka.

FUTBOLA Derbian galdu



Bergararen aurka jokatu zuten Estiren nesken joan den igandean. Pare

pare zeuden bi taldeak, baina azkenean bergarrek garaipenaren gola sartu zuten eta hiru puntuak eraman zituzten. Kopako bigarren itzuliko partida zen.

Asteburu honetan Debara joango dira Hamaikak Bat taldearen aurka jokatzera. Atxabalpen irabazi egin zieten lehenengo itzulian. Konfiantza ere ematen du horrek. Baina debatarren futbol zelaian euria egiten badu, lan ederra izango dute mondragoetarrek haien aurka, fisikoki gehiago dira eta debatarrek.

Hurrengo aldira sei talde-rik bi sailkatzen dira eta baita hirugarren bi onenak ere.

Bestalde, ebakuntzatik errekeratzen ari da Alaitz,

baina orain Juliri egingo diote ebakuntza, apirilaren 13an. Izan ere, Julik haragi etena dauka eta errekerazio luzea izango du. Haultzat, beraz, amaitu da denboraldia.

SASKIBALOIA Bategatik kale



Kenci Arrasateko nagusiek garaipena esku artean izan zuten

Azpeitin, baina azken minutuetan egindako akats inozoek partida galtzea ekarri zien Lander Errastiren mutilei. Eta hori gutxi balitz, bi segundo falta zirenean epaileek geratu egin zuten erlojua. Hainbat protestaren ondoren, epaileak 4 segundo falta zirela eta zelai erditik ateratzeko agindu zien Kencikoei. Azkenean 62 eta 61 Jostaldiren alde. Larunbatean Iturripen arituko dira Barakaldoren aurka.

Emaitzak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Arrasate 23 - Universitario 15, 9
- **Jubenilak:**
Arrasate 22 - Universitario 15, 20
- **Kadeteak:**
Arrasate 36 - Kakarraldo 8

FUTBOLA

- **Lehen errejioanala:**
Kilimon 3 - Mondra 3
- **Ohorezko gazteak:**
Euskalduna 3 - Mondra 2
- **Bigarren gazteak:**
Zarautz 3 - Arrasate 1
- **Ohorezko kadeteak:**
Lagun Onak 2 - Arrasate 0
- **2. kadeteak:**
Aretxabaleta - Arrasate
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate 1 - Lagun Onak 2

- **Lehen errejioanaleko neskek:**
Mondra 0 - Bergara 1

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Loiola 21 - Arrasate 21
- **Gazte maila:**
Arrasate 19 - Almen 26
- **Kadete:**
Arrasate 14 - Elgoibar 19

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
Jostaldi 62 - Kenci Arrasate 61
- **Kadete mutilak:**
ATSS Urkiza 78 - Kenci 25
- **Kadete neskek:**
Internacional 44 - Kenci 18

Jokatzekoak

ERRUGBIA

- **Seniorrak :**
Elorrio - Arrasate

FUTBOLA

- **Lehen errejionala:**
Mondra - Zarautz, igandea, 16:30
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra - Sporting Herrera larunbata, 16:30
- **Bigarren gazteak:**
Dunboa - Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate - Baskonia igandea, 11:00
- **2. kadeteak (Kopa):**
Arrasate - Beasain larunbata, 11:30
- **Ohorezko infantilak:**
Eibar - Arrasate
- **Neskak:**
Hamaika Bat - Mondra

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Arrasate Almen-Aierru, igandea, 12:00
- **Gazte maila:**
Urola-Arrasate

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:**
Kenci Arrasate - Barakaldo, larunbata, 18:00

FUTBOLA


- **Errealaren Nazioarteko Gazte mailako txapelketa**
jokatuko da Arrasaten ere. Aurrez aurre, apirilaren 21ean honako taldeak arituko dira: Manchester United - Sevilla

Udaberri trofeoko txapeldunak

Zuazua-Agirre eta Uribarren-Jimenez dira aurtengo Udaberri trofeoko txapeldunak. Donostian, Egiako pilotalekuan jokatu zuten igandean lehen eta bigarren urteko kadeteek, Hernani eta Oiartzunen aurka.

Zuazuak eta Agirrek gainera sekulako jipoi eman zieten Hernaniko Etxebeste eta Alberdiri. 20 eta 0 aurretik joan ziren mondragoetarrak eta azkenean hernaniarrek tanto bat egitea lortu zuten. 22 eta 1 amaitu zen lehen urteko kadeteen arteko finala, baina aldea izugarria izan arren, partida ez zen bat ere samurra izan. 40 bat minutu iraun zuen norgehiagokak.

Bigarren urteko kadeteek ere txapela jantzi zuten igandean. Uribarren eta Jimenezek Oiartzungo Alvarez eta San



Errastik 19an laga zuen Patxi Ruiz, faboritua zena.

Sebastianen aurka jokatu zuten eta zelako partida gainera! Bosna egon ziren, baina nerbioak ahaztea lortu zuen Uribarrenek eta Jimenez ere bikain aritu zen ezkerrekin airez. Azkenean, Uribarren eta Jimenez 22, Oiartzunek 12, eta txapela Arrasatera.

PARTIDAK UARKAPEN

Aste honetan Asperen norgehiagokak jokatuko dira Uarkapen. Zearra eta Olaizola II arituko dira eskuz banaka eta Auskin, Goñi II - Etxaniz, Arroyo eskuz binaka. Partidak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira.

Valentziatik esku hutsik

Espainiako junior mailako txapelketan egon ziren joan den asteburuan Unai Sarabia eta Jonathan Perez, kirolari mondragoetarrak. Gipuzkoako beste zazpi kirolarirekin batera izan ziren Valentzian. Baina ez zuten ez, mondragoetarrek zorte handirik izan.

Unai Sarabia 60 m.ko lasterketan lehiatu zen eta lehenengo sailkapena gainditu egin zuen. 7'12''ko denbora egin zuen. Final erdietara pasatzeko lasterketan, 7'25''eko denbora egin zuen eta hortxe gelditu zen. Unai dagoeneko lau aldiz joan da Espainiako txapelketara. Jonathan Perezentzat, berriz, aruten izan da lehenengo aldia. Horregatik agian, ez zaizkio gauzak nahi bezala ateratu. Hiru bliogabeko jauzi egin zituen eta lehenengoan gainera, ez zuen 4 metro


eta 10 cm.ak gainditu.

Dena dela, meritorik ez zaie falta Arrasate Kirolal Atletiko Taldeko kirolariei. Kontuan izanik, entrenatzeko dituzten medio eskasiak, nahiko dute eta horri aurre egiten.

ALEBINEN TXANDA

Bestalde alebin mailako kirolari gazteak apirilaren 8an Zumarragara joango dira hango lehiaketan aritzera.

Nagusiek hurrengo, kanpoko txapelketetan hasiko dira.



Unai Sarabia.

Txirrindulariak hasten

- **Arrasate Kirolak:** Oñatin, Jon Lete 5
- **JMA:** (lehen urteko kadeteak) Eibarren, Mikel Arregi 8
- **Fagor:** Antzuolan, Josu Beitia eta Imanol Soliserdiko tokietan.

ASTE HONETAN

- **Arrasate Kirolak** (infantilak) Elgoibarren, larunbatean
- **JMA** (lehen urteko kadeteak) Urretxun, larunbatean
- **JMA** (bigarren urteko kadeteak) Lazkaon, larunbatean
- **Fagor** (Gazteak) Errenterian, igandean

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleentzako artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeke.

Aurreko asteko erantzuna: ASTOREK aztore hegazti arrapakaria esan nahi du.

Galdera: ARRASATE KIROLAKeko eskaparatean zein bi koadro ikus daitezke hari eskerrak ematen?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:




Zazpinako errugbian jokatzeko

Futbolean, saskibaloian, igeriketan, floor ballean eta beste hainbat kiroletan aritzen dira asteburu eta astean zehar, eskola orduetatik kanpo Arrasate Kirol Proiektuan ari diren neska-mutikoak. Asteburu honetan, ordea, beste aukera bat izango dute: errugbia. Zazpinako errugbia, hain zuzen ere. Eta hori zer den? Zazpi jokalarirekin jokatzeko den errugbia. Datozen bi asteetan arituko dira multikiroleko neska-mutikoak horretan.

☺ XEHETASUNAK

Kontakturik gabeko errugbi klasikoaren moldaketa da zazpinako errugbia eta zazpi jokalaritaz gain, nahi beste aldaketa egin daitezke talde



bakoitzean.

Jokalaritakoak zapi bat eramango du buztan bezala eta baloia esku artean izatean, zapia kenduz gero, baloia askatu eta zapia berreskuratzen saiatuko gara, jokoz kanpo geldituko gara eta bitarte horretan.

Bestalde, erasoan taldeki-deen artean atzerako paseak

eginez gero, entsegua egiten saiatuko gara beste taldearen



gol esparruan. Eta defentsan ari garela, beste taldekoei zapia kenduz gero, hauek erasoak gelditu egingo dugu.

☺ MENDI IRTEERA

Aralar aldera abiatuko dira AKPkoak asteburuan. Horretarako Ataungo Urkillagako parkineraino joango dira eta handik Agaotz eta Sastarri gainera. Lareoko urtegitik jaitziko dira eta Lizarrusti gainean hartuko dute itzultzeko autobusa. Itzulera beranduego izango da, hamaiketakoak gain bazkaria ere kanpoan egingo dute eta. Beraz, badakizue, hamaiketakoak eta bazkaria eraman!

Irteera ohi bezela, goizeko 08:30etan izango da.

Asteburuko hitzorduak

Martxoak 1, larunbata

☺ AURREKIROLA

BEISBOLEKO TXAPELKETA

- Musakola
- 09:30 La Merced - S. Viator A SFX D - SFX E
 - 10:30 Aramaio - Erguin SFX U/3 - S. Viator B S. Andres - Musakola SFX C - SFX A
 - 12:30 SFX U/4 - SFX B

☺ MULTIKIROLA

RUGBIKO TXAPELKETA

Garagartzako errugbi zelaian

09:45 Autobusa ITURRIPETIK MUTILAK

La Merced - SFX C
S. Viator C - Aramaio

NESKAK

SFX A - SFX U

11:15 Autobusa ITURRIPETIK MUTILAK

S. Viator A - SFX B
SFX A S. Viator B
Erguin

NESKAK

Erguin
La Merced

☺ INFANTILAK

SASKIBALOIA

MUTILAK

M Lagundia
12:00 M Lagun. B - Arrasate B
11:00 M Lagundia A - S. Viator

NESKAK

M Lagundia
10:00 M.Lagundia - S. Viator

FUTBOLA

NESKAK

Atxabalpe
09:00 La Merced - SFX A
09:00 SFX B - S. Viator

MUTILAK

Jpintza
10:30 Aranzadi - SFX



SFX B futbol taldea.



La Merced futbol taldea.

AITOR ELIZARAN (TXATXILIPURDIKO LEHENDAKARIA)

“Aisialdian eredu bat sortu dugu”

Joan den astean batzar orokorra egin zuen Txatxilipurdik. Aitor Elizaranek hirugarren urtea bete du Txatxilipurdiko lehendakari lanetan eta bere ustez “oso positiboa izan da iazko jarduna. Aurrera begira, ohiko ekintzak bultzatzeaz gain, horiek hobetzeko ahalegina ere egingo dugu, hala nola, *Eskola-Aisialdia bat eginek egitasmoa*”.

— Txatxilipurdiren eskaintza ezagun egin da Arrasatetik kanpo ere.

— Sekula ez dugu gure eskaera zabaldu. Alderantziz izan da: kanpotik eskatu digute. Beasainen ludoteka proiektu bat egiten ari gara. Euskararen normalkuntzaren plan horretan hainbat ikastetxetan ari gara: Bizkaian, Zumaian, Lasarten, Gasteizen... baina beti eskatu egiten digute. Oñatin orain dela lau urte ari gara gaztetxokoa gestionatzen, baita Gatzagan ere. Eskoriatzan beste proiektu batean ari gara. Ikastetxeek edo udalek egindako eskaerei erantzunez izaten da beti.


— Nola erantzungo dizue eskaera?

— Bide egokia litzateke guk esku artean ditugun proiektuak beste herri batzuetara eramatea urtebeteko plan batekin, baina gero herri bakoitzean ardurandunak ipini, horren jarraipena egiteko. “Txatxili txikiak” edo deitu genitzake.

— Txatxilipurdik eredu bat sortu du?

— Aisialdian nik uste eredu bat sortu dugula eta hori argi eta garbi ikusten da daukagun eskaintzarekin.

— Zeri emango diozue lehentasuna?



— Orain dela hiru urte jarri genuen martxan “Eskola eta aisialdia bat eginek”. Bi urte daramatzagu Institutuan eta aurrean La Merced eta Erguin Herri Eskolan hasi gara. Ikasleak konturatu egin behar dira euskararen erabilera ez dela jolasetara mugatzen, baizik eta modu ludiko batean eskola orduetan erabil daitekeela. Talde bakoitzak euskararekiko duen jarrera, erabilera eta ezagutza aztertzen dugu eta horren arabera, programa eta helburu egokituak aurkezten diogu. Epe luzera Arrasateko ikastetxe guztietan egotea litzateke helburua.

— Zer daukazue hobetzeko?

— Ludotekak, Erdialdean eta Santamainan ditugu eta Gaztetxokoak, Erguinen, San Andresen eta Musakolan. Baina ahalegindu egin behar gara Udalarekin espazio egokiak bilatzen. Izan ere, San Andresen erabiltzaile pila bat dago eta lekua txikia delako ez dago gehiago. Musakolan, lekua egokitzen aritzen dira erabiltzaileak egunero.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzak, DBHko 2.zikloko eta DBH ondoko ikasleek atzerrian alemana, frantsesa eta ingelesa ikasteko kurtsoetako plazaen deialdia egin du. Epea: apirilak 10.

• EUSTATEk, estatistikaren alorrean heziketa eta ikerketa lanak egiteko diru laguntzak. Epea: apirilak 23.

■ UDALEKUAK:

• Diputazioak antolatutako Udalekuetan parte hartzeko aukera, 7-13 urte bitartekoek, 7 eta 14 eguneko egonaldiak, Barria, Gorkiz, Hondarribia, Biana, Lauaxeta, Orio, Zuhatza eta beste hainbat lekutan. Ingeles egonaldiak eta ur ekintzak burutzeko aukera ere egongo da. Izen emate epea: martxoak 27tik apirilaren 5 arte.

• Euskal Udalekuak, Abaigar, Bernedo, Goñi eta Urdiritzen, uztaila eta abuztuan ekintzak burutzeko aukera. Epea: apirilak 7.

■ LANA

• Eskoriatzako Udalerako apa-jadoreak behar da.

• Eusko Legebiltzarrerako informatikaria behar da. Epea: apirilak 10.

■ LEHIAKETAK

• Udaleko Gazteria Zerbitzuak, urteroko argazki lehiaketa antolatu du. Aurtengo lema, “Gazteak eta arrazakeria”, zurbeltzean edo koloretan, gehienez hiru argazki aurkez daitezke. Epea: urriak 11.

■ TXARTELAK

• Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Bide egokia litzateke esku artean ditugun proiektuak beste herrietara eramatea”

Haur eta gazteen literatura aztertuko du Lolo Ricok Monterronen

Apirila liburuen hilabetea da. Horiekin zerikusi estua duten bi ospakizun ditugu: hilaren 2an, haur liburuen eguna ospatuko dugu, eta 23an, liburuen eguna. Hori dela eta, Arrasateko liburutegiak ekintza bereziak antolatu ditu, haurrek eta helduok batera ospatzeko. Eta Haur Liburua ospatzen lagunduko digun bisitaldi sonatu bat ere izango dugu: Lolo Rico idazlea etorriko da Arrasatera, apirilaren 6an, ostegunez, *Si tu hijo te pide un libro...* izenburuko bere azken liburuen aurkezpen hitzaldia egitera. Monterronen izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Aski ezaguna dugu Lolo



Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

Rico, telebistan lan egin baitu luzaro. Errealizatailea izan da Television Españolan, bai

eta *La Bola de Cristal* haur-errentzako saio ezagunaren arduradun ere, besteak beste. Oso programa kritikoa izan zen hura, eta bere garaian eskema guztiak hautsi zituen: antenan iraun zuen artean, 1984 eta 1989 bitartean, bost milioi bat ikusle izatera iritsi zen; horietatik lau helduak ziren.

Telebista izan da bere lan esparruetako bat eta liburua bestea. Izan ere, biak oso lotuta izan dira Lolo Ricoren bizitzan, bere liburu eta artikuluetako askok telebista baitzuten gai. Horren adibide moduan *TV, fábrica de mentiras* liburua azpimarra deza-kegu, argitalpen ugari izan

duena.

Komunikabide hori askotan analizatu badu ere, haur eta nerabeen literaturan ere izan du zeresana Lolok. Eta horixe da, hain zuzen, Monterronen landuko duen gaia, horri buruz idatzi baitu bere azken liburua, *Si tu hijo te pide un libro...*

Lan horretan, gurasoei ematen zaie aholku, seme-alabek zein liburu irakurri behar duten jakiteko, garrantzitsua baita ondo aukeratzea, haur eta gazteengan irakurzaletasuna pizteko. Liburu onak irakurtzeak eskola porrotean duen eragina ere aztertuko du Lolok.

Los Emigrados, totalitarismoa salatzen duen lana taularatuko du Txalok

Orain dela gutxi izan zen Txalo antzerki taldea Arrasaten, *Dama eta Kardinala* izeneko komediarekin. Eta aurki izango dugu euren lana berriro txalotzeko aukera, domeka honetan aurkeztuko baitute Amaia antzokian *Los Emigrados* komedia dramatikoak.

Mulie Jarju —*Las Cartas de Alou* filman egindako lanagatik Donostiako Zinemaldian aktore onenaren saria jaso zuena— eta Roman Luknar izango dira antzezleak, eta zuzendaria, berriz, Ramon Barea.

Slawomir Mrozek autore poloniarra idatzi zuen *Los Emigrados* 1975.ean, eta Ramon Bareak eguneratu egin du. Hala ere, jatorrizko lanaren funtsari eusten dio horrek ere. Mrozek lanak bi pertsonaje aurkeztu zituen, eta horien arteko pasadizo bidez



Igandean izango dugu *Los Emigrados* antzezlanaren Amaia antzokian ikusgai.

bere garaiko Europaren egoeraren salaketa egiten zuen. Moldaketa honetan, bi pertsonaje horietako bat Ekialdetik dator, eta bestea Afrikatik, biak ihesi.

Umore garratza eta egoera surrealistak proposatzen

ditu Mrozekek, errealismoaren eta sinbolismoaren eragina duen lengoaiarekin. Era guztietako totalitarismoa salatzea da bere helburua. Horretarako, hainbat mitoren, ideien eta sineskeriaren aurka egiten du idazleak.

Topaketa arrakastatsua

Joan den larunbatean egin zen eskola arteko abesbatzen XIII. topaketa Amaia antzokian. 15 taldek hartu zuen parte eta antolatzaileen esanetan arrakastatsua izan zen.

Itziar Aranburu izan da arduradunetako bat eta oso iritzi ona agertu du: "Ikuslegoa handia izan zen eta goiz partean jende askok zutik gelditu behar izan zuen, 4 urtetatik 8 ute bitarteko haurrak ikusteko. Umeen motibazioa aipatu nahiko nuke oso gustura aritu ziren eta. Arratsaldean 16 urtera bitartekoek abestu zuten eta hainbat adinetako haurrak abesten entzutean kantuetan izaten duten eboluzioaren kontura gaitezke."

Oso ondo aterata zen aurten topaketa, beraz. Ia datorren urtean ere berdina gertatzen den.

irakurle eta entzule

Iturria: Jungla Disc

diskoak

SUGAR RAY
14:59 (Lava/Atlantic)



Gure artean ez da oso ezaguna California-ko talde hau. Eta ez da meritu faltagatik, oso doinu marxosoak egiten baitituzte.

Denetarikoa eraginak jaso ditu Sugar Rayk: 1997.an arrakasta zerrenda guztiak astindu zituen *Fly* abestiak Karibeko reggae doinuak lantzen zituen. Euren azken emaitzan, berriz, hip-hoparekin, rockarekin, punkarekin eta pop doinuekin ausartzen dira. Horren berri izateko, imagina ezazue Nirvana, Beatles, The Clash eta The Steve Miller Banden arteko nahasketa: horixe da, gutxi gorabehera, Sugar Rayren formula. Akaso ez dute musikaren historian iraultzarik egingo, baina aldi onak pasatzen lagunduko digute. *Every Morning, Someday, Ode to the Lonely Hearted* eta *Even Though* abestiek horrela erakusten digute.

liburuak

HAMAIRU + BAT
Ipuinak

Diego Martiartu
Apokaliftin argitaletxea
97 orr., 1.300 pta



Ironia eta umore beltza darie Diego Martiartuk atondu dituen ipuinoi. Sarrioinandiaren estiloan, laburrak dira eta zehatzak. Tarantinoren tankera, edozein letrakantoitan

ezusteko lotsabakoa eman diezaguke. Eta estiloari dagokionez, propio landutako esateko modu sinplea darabil, euskara txukun eta eraza baliatuz.

Txalo bero bat, gainera, liburua bere kasa ateratzera ausartu delako. Izan ere, edizioa oso txukuna da. Zorionak berrari eta argitalpenean lagun izan dituen arrastearrei. Asmatu egin dute.

Eta zuk, irakurle, erosi eta irakurri liburutxo hau. Ez zaizu garbatuko.

asteko filma



Tres Reyes

EEBB 1999. Komedia dramatikoak.
Zuzendaria: David O. Russell.
Aktoreak: George Clooney, Mark Wahlberg, Ice Cube.

HARIA

Golkoko Gerran kokatzen da istorioa. Sadam Husseinekin su-etena hitzartu zenetik, soldadu iparramerikarrak jairik jai ematen dute denbora. Halako batean, Irakek Kuwaiti ostutako urte mordoaren kokagunea erakusten duen mapa bat iristen da hiru gudariren eskuetara. Urrearen bila irtetzen dira, bidean zer aurkituko duten susmatu ere egin gabe.

KRITIKA

Errealismo latzena eta umore beltzena nahasten ditu zuzendariak, eta emaitza onekin nahastu ere. Guztiz engainatzen du filmak, Estatu Batuen boterea goraiatzeko abentura film arina dirudiena sakontasunez janzten baita. Ez da "onen" eta "txarren" film tipikoa, pertsonaje guztiak alde onak eta txarrak dituztelako, eta euren gizatasuna kinkan jarriko duten egoerei aurre egin beharko dietelako. Bizitzan gertatzen den moduan.

asteburuan zer

kontzertuak

BOIKOT

Boikot taldea izango dugu bisitan aste-buru honetan Bergarako Jam aretoan. Punk-rock estiloko doinuak landu izan ditu beti talde honek, nahiz eta hasieran Madrileko rock hiritarretik gaur egungo doinuetarako bilakaera izan duen.

Laukote honek egin duen egitasmo-rik garrantzitsuena *La Ruta del Che* izeneko trilogia izan da, *No Mirar, No Escuchar* eta *No Callar* lanek osatua. Horietako bi Vigon eta Mexicon grabatu zituzten Boikotekoek. Trilogia honetako musika mundu osoan zehar eraman zuen Madrileko taldeak, 1997.eko maiatzean hasi zen mundu bira batean. 1000 kontzertutik gora egin zituzten, Espai-



nian, Kuban eta Mexikon. *La ruta del Che* egitasmoaren ondoren, zuzeneko lan bat grabatu du Boikotek, *Que nos den tequila* izenekoa. Boikoteko kideen esanetan, euren helburua betiko berbera da, hots, "poza, dibertsioa eta musika transmititzea, horregatik gabiltza eta hainbeste urte hemen".

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Apirilak 7: DJ festa

Apirilak 8: Grave Digger + Iron Savior

Egun bakoitzerako **3** sarrera
zozketatzen ditugu.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otolara 31

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 31

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Edurne Izarzelaia,
 Dukiena jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Ekilan** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.** Asteko
 albisterik nabarmenenak,
 Eneko Azkaratek
 aurkeztua.
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
 Gonzalezekin.

LARUNBATA, 1

- 13:30 Asteko saioen errepika:
**Jolasplast, Gatza eta
 Berakatza, Hamaika
 Magazin, Ekilan, Soinuz
 Blai, Astebete.**

IGANDEA, 2

- 13:30 Asteko saioen errepika:
**Jolasplast, Gatza eta
 Berakatza, Hamaika
 Magazin, Ekilan, Soinuz
 Blai, Astebete.**

ASTELEHENA, 3

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Eulali Maskiaran, Matiku
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Astebete** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Mondrasport.**
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).

ASTEARTEA, 4

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Kontxi Juantorena, Uxarte
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Mondrasport.**
 19:20 **Jolasplast.**



Mikel Lizarralde.

- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Hamaika Magazin.** Lore
 sikuak izango dira
 mintzagai. Bidaien
 atalean, berriz, Maroko
 bisitatuko dugu.



Arantazu Lagunilla.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).

- 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
 Gonzalezekin.

ASTEAZKENA, 5

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Igor Ezpeleta, Elizondo
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Hamaika Magazin.**
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Aurrez Aurre** (errepika).
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).



Miren Gonzalez.

OSTIRALA, 7

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Edurne Izarzelaia,
 Dukiena jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Guganda** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.** Asteko
 albisterik nabarmenenak,
 Eneko Azkaratek
 aurkeztua.
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
 Gonzalezekin.

OSTEGUNA, 6

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 Alberto Elorza, Zelai
 Zabala jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Aurrez Aurre** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Guganda.** Borondatez lan
 egiten duen jende multzo
 geroz eta handiagoa
 izango dute hizpide.
 22:00 **Gatza eta Berakatza**
 (errepika).

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Okelak

NOIZ

PLATERA

Astelehena 3

Txahal karrilerak

Asteartea 4

Buztana

Asteazkena 5

Bildotsa

Osteguna 6

Txerri hankak saltsan

Ostirala 7

Oilasko izterrak satsa gazi-gozoan

Boluntarioak hizpide

Guganda ostegunean, 21:30

Hirugarren Munduarekin elkarlanean aritzen diren gobernu kanpoko erakundeak (GKE) boluntarioen lanean oinarritzen dira. Eta urtero geroz eta gazte eta heldu gehiago dira Euskal Herritik herrialde txiroetara joanez, baztertu eta ahulenen alde gogoz lan egiten dutenak.

Adibidez, joan den martxoaren 12an eta 19an kanpo zorra deusezteko egin zen herri galdeketa 40 boluntariotik gora aritu ziren Arrasaten eta Aretxabaletan. Espainian, berriz, 30.000tik gora. Boluntario hauek dira GKEak eta bestelako talde asko eta askoren lana aurrera ateratzen dutenak.

Horregatik Gugandak hausnarke-ta egin nahi du gizarte fenomeno bihurtu den honen gainean. Gaiaren sarre-ra gisa erreportaje bat izango da lehenik eta ondoren, elkarriketa egingo da, Hirugarren Munduan boluntario gisa aritu diren bailarako pertsona bat edo birekin.



Kanpo zorraren galdeketa boluntarioek zaindu zuten

Beti bezala, erreportajea eta elkarriketaz gain, albisteak eta bidezko merkataritzaren atala izango dira. Bailarako GKE baten lana gertuagotik eza-gutu ahal izango dugu.

Martxoko irabazlea

Andoni Ezkurrak irabazi zuen Arrasate lehiaketako saria. Joan den astelehenean banatu zuten saria Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik Mondrasport saioan egindako zozketan. Zorionak Andoni!

Hilabete honetan 25 lagunek hartu du parte lehiaketan. Hurrengo irabazlea izan nahi baduzu parte hartu lehiaketan.



ATBn esanak




"Sifilisari aurkitu zitzaion konponbidea. Olokoziari ere bai. HIESa ere sendatuko da. Baina orain HPV (Giza Papiromaren Birusa) deituriko gaitza agertu da eta oraingoz ez du sendabiderik. Kondoia erabili... etxetik kanpo bazabiltza".

Fernando Kristobal

Ginekologoa

Irratia

Maiatzaren 2an berriz ere antenan



Arrasate Irratia

Martxoaren 3an eten egin zen, behin behinekoz, Arrasate Irratiaren emisioa. Arrazoiak: Arrasate pasealiekuko egoitza utzi eta Arkoren etxera pasatzea. Izan ere, Arrasateko Udalak onartu egin zuen aurrerantzean irratia kudeaketa Arkok egitea.

Harrezkero irratia ixilik dago, baina Arko badabil irratia etorkizuna prestatzen. Dagoeneko, gertu du udalarekin batera adostutako egutegia.

Horren arabera, martxoaren 27an Euskara batzordeak onartua behar du Arrasateko Udala eta Arkoren arteko hitzarmena. Datorren astelehenean, aldiz, apirilak 3, Gobernu batzordeak onartuko du. Ordurako osatua beharko du irratiko lantaldeak.

Apirilaren 10erako irratia lekuz aldatu eta inbertsioak egin beharko dira. Orain arte erabili duen sistema analogikoa alde batera utzi eta aro digitalean sartuko da Arrasate Irratia.

Maiatzaren 2an berriro ere emititzen hasiko da, betiko dialean: 107.7. Adi egon, hementxe izango duzue eta irratia gaineko berri gehiago.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte,12 Bergara Tel.: 943 76 22 96

VW Golf GTI				500.000
Opel Kadett GSI 2.0				575.000
Peugeot 106 Long Beach 1.5 Diesel			LD, IK, IZ, KE	1.200.000
Peugeot 206 XR 1.4			LD, IK, IZ, KE, Airbag	1.425.000
Peugeot 306 Break 1.6 Style			LD, IK, IZ, KE, Airbag	1.745.000
Peugeot 406 SR Turbo Diesel			LD, IK, IZ, KE, Airbag, AG	2.350.000
Peugeot 806 2.0 ST			LD, IK, IZ, KE, Airbag, AG	2.850.000

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30

Peugeot 406 Coupe V6			0 km	*7
Peugeot 406 SR 1.8			0 km, 4 airbag	*7
Peugeot 306 Graffic 1.6			AG 17.000 km	*6
Peugeot 306 Break 1.6			ABS, 2 airbag	*6
Peugeot 106 Sketch 1.1			10.000 km	*4
Daewo Nubira 2.0				*6

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 Bergara Tel.: 943 76 22 43

Peugeot 309 GTX 1.9	SS- -AK	1991	LD, KE, IZ, LKA, IK	*3
Renault Supercinco GTX	SS- -AB	1988	KE, IZ, KA, AH, IK	*1
Ford Focus 1.6i 5 ate	SS- -BG	1999	AG, KE, LD, IZ	*6
Citroen Zx 1.9D	SS- -AM	1992	IZ, KE	*4
Opel Kadet 5 ate 1.7D	SS- -AH	1990		*2
Seat Toledo GT 1.8 16v	SS- -AL	1992	IZ, KE 4, LD, AH, LKA, ABS	*3

PEUGEOT (ETORMOBIL - EKOMOBIL). Tel.: 943 20 09 96 / 943 20 09 66

Peugeot 106 1.1 (hainbat)			Gasolina edo Diesel	875.000tik aurrera
Peugeot 206 XR 1.4			LD, IZ, KE, Airbag	1.425.000
Peugeot 306 Break 1.6 Style			LD, IZ, KE, Airbag	1.745.000
Peugeot 306 Graffic Turbo Diesel			LD, IZ, KE, Airbag, AG	1.850.000
Peugeot 406 SR Turbo Diesel			LD, IZ, KE, Airbag, AG	2.350.000
Peugeot 806 2.0 ST			LD, IZ, KE, Airbag, AG	2.850.000

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoa
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapaia elektrikoa UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PT Ara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA
 *5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra



Amillaga 1, 4 pabilioa.
 Bergara.Tel.: 943 76 33 00

AUTO DESGUACES BERGARA



Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

**BIGAREN ESKUKO PIEZAK
 PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
 GRUA ZERBITZUA**

PENAKOBA



Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
 Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
 ARRASATE ONATI

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g Arrasate Tel.: 943 79 41 98

Fiat Punto TD		1999	IK, 5 Ate	Kontsultatzeko
Fiat Tipo	SS- -AL	1992	IK, 5 Ate	Kontsultatzeko
Renault Megane	SS- -AX	1996	IK, 5 Ate, LD, IZ	Kontsultatzeko

MECA. San Andres, 8 Arrasate Tel.: 943 71 21 67.

Audi 80 TD		92/07	LD	975.000
Ford Galaxy TDi		96/10	LD, IZ, KE, AG, ABS	2.730.000
Chrysler Voyager 2.5 S.E.		97/12	LD, IZ, KE, AG	2.700.000
Ford Transit Furgon		96/10	LD	1.350.000
Opel Corsa 1.4 3 ate		98/09	LD, KE, IZ, Llantak	1.190.000
Classic 1.6 Alize		97/12	LD, IZ, KE, AG	1.590.000

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara Tel.: 943 76 47 74

Opel Astra (hainbat)	<Urtebete	Full Equip	Lehiakorra
Opel Vectra (hainbat)	<Urtebete	Full Equip	Lehiakorra
Opel Frontera 2.3 TD	BI - BS	KE, IZ, IK, LD	*7
Opel Kadett		Gasolina eta Diesel	*2
Opel Corsa 1.2.	SS- -AH		*1
Peugeot 205 1.3 Raylle	SS- -AF	IK, Llantak	*1
Citroen XM 2.2. diesel	BI- -BJ	LD, KE, IZ, IK, AG, A	*4
Ford Escort 1.6	SS- -AB	IZ, IK	*1
Seat Marbella	SS- -AM	IK	*1
Hyundai Atos 5 ate	SS- -BB	UAT, KE, IZ, IK, LD	*4

Auto gehiago ditugu


REPARACIONES LENIZ, C.B. Aingeru Ibiltokia, 31 Eskoriatza Tel.: 943 71 50 61

Peugeot 205 Plus	SS-6795-AI	1990	
Rover 214 SI	SS-7350-AN	1991	
Citroen AX Stillo	SS-8730-AC	1988	

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84



**SAN MARTIN
KARROZERIAK**

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu!



Txorno
Auto-errekambioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN

Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58



Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Meatzerrekan guztiz berritutako baserria salgai, luxuzkoa. "Aitazpi" izena du baserriak. Tel.: 943 79 70 25.

3. Errentan emateko

- Etxea alokagai Unqueran (Kantabriar) asteburu, Aste Santu eta udarako. Tel.: 942 33 57 80.

- Etxebizitza alokagai Erdiko kalean. Tel.: 943 79 28 21. Denda ordue-tan.

- 3 gelatako etxea alokagai, Erdi-ko kalean. Tel.: 943 79 40 53.

- Etxebizitza alokagai San Andre-sen. 14:00 - 16:00 eta 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 17 25.

- Gela bat alokatzen da ingelese-ko eskolak emateko. Tel.: 943 79 54 33.

- Etxebizitza alokagai Zarautzen, ekaina, uztaila eta abuztuan. Erdialdean dago, terraza eguzkitsua eta garajearekin. Tel.: 943 13 03 42.

- Erdiko kalean etxebizitza aloka-tzen da ikasleentzat. Tel.: 943 79 12 20. Dora.

- 3 logelako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 607 84 86 73. 21:00etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

- Ilkasleak etxebizitza bila dabil-tza. Tel.: 616 55 03 18.

5. Etxeak osatzeko

- Bi lagun behar dira martxotik aurrera etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 16 54.

- Aretxabaletan etxebizitza kon-partitzeko pertsona bat behar da. Tel.: egunez, 943 74 80 00. Ilun-tzean, 943 77 18 72. Amaia.

- Gela bat dugu alokagai etxebi-tza batean. Tel.: 629 06 38 63 eta 606 87 26 82.

- Gela bat zureztat San Andresen, pisu konpartitu batean. 21.000 pta hilero + gastuak. Tel.: 943 71 24 00, 226 luzapena (David), 667 48 30 94 (Oskar).

- Mutila behar da etxebizitza osa-tzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. 8:00-15:00.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pres-ek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Logela bat alokagai, Ferixalekuan. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

- Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 943 79 32 28. Mikel.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

- Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eburne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Kalealdean, baina Zarugaldetik ger-tu, 100 m²ko eta bi solairuko loka-la salgai. Tel.: 943 79 18 70.

- Ferrerías 42an 25 m²ko lokal komertziala salgai. Prezio berezia. Tel.: 943 78 12 32

14. Errentan emateko

- Taberna alokagai Arrasaten, Udal-pe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

- Martxan dagoen denda alokagai

- Aretxabaletan. Gaixotasunagatik ezin dut atenditu. Tel.: 626 37 93 66.

LANA

17. Eskaintza

- Neska asteburuetan tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

- Esperientziadun neska prest etxe-ko garbiketarako orduka egiteko, ume-ak zaintzeko edo beste lanen bat egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ain-hoa.

- Medikuntzan lizentziatua gaixo nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 08 21.

- Enpresa zientzietan lizentziatua edozein lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

- 16 urteko mutila, Mondragoeko tabernaren batean asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 943 77 01 83. Gaez deitu.

- Enpresa edo tailer batean lan egin-go nuke. Tel.: 943 79 37 68. Idoia.

18. Eskaerak

- Aramaioko gastronomi elkarte

baterako garbitzailea behar da. Tel.: 945 44 52 15.

- Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Pertsona euskalduna behar dugu sagardotegi batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 53 85. Juanjo.

- Bi zerbitzari behar dira. Bat taber-narako eta bestea jangelarako. Komenigarria litzateke automobila edukitzea. Tel.: 943 76 50 99.

- Zerbitzari lanak egiteko pertsona bat behar da, hobe esperientzia badauka. Tel.: 943 77 17 97.

- Ile apaintzailea behar dugu. Tel.: 943 79 80 61. 21:00etatik aurrera.

- Sukaldaria behar da jatetxe bate-rako. Tel.: 943 71 51 23.

- Emakumea behar da etxeko lanak egin eta neskatila bat zaintzeko. Tel.: 943 79 29 19.

- Pertsona bat behar da Aramaion (Uribarri auzoan) Intxaurren Elkar-teko garbiketarako egiteko. Interesa-tuok feitu 945 44 50 68 telefono-ra. Jabier edo Klaragatik galdetu.

- Pertsona bat behar dugu sukal-deko lanak egiteko. Tel.: 943 79 58 50. Goizez deitu.

- Sukaldari bat behar da jatetxean. Tel.: 943 79 24 58.

- Sukaldaria behar da asteburue-tan Muxibar pizzerian lan egiteko. Tel.: 943 79 11 25.

- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 30 urtetik gorakoa eta esperientziaduna. Deitu 20:00etik aurrera. Tel.: 94377 17 48.

- Neska prest Arrasaten arratsal-dez umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partik-ularrak emango litzuzke Mondrago-en edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

- Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

- DBHko eskola partikularrak ema-ten dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

21. Eskaerak

- Gorren hizkuntza edo LS dakien

norbait behar dut praktikatzeko . Tel.: 607 31 02 66. Sonia.

• DBHko 3. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 96 69.

• Alemanierazko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 20 15. Maite.

• Polakoa ikasi nahiko nuke. Tel.: 666 33 096. Sergio. Gaeuz deitu.

• Bi neskak ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

MOTORRA

23. Saldu

• Gasgas Trial motorra salgai, 250 cc-takoa- Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Motorra salgai. Suzuki GS-500 E, karenatua eta faro bikoitza. 25.000 km., aseguruu maiatzera arte, estrak, oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• Citroën Xsara 2000 vts 16 v, SS-BG salgai. Tel.: 943 79 64 48. Jon.

• Nissan Vanette Coah salgai. 76.200 Km. 200.000 pta. Tel.: 943 79 69 14.

• Seat Toledo Vs auto berria salgai. Gris metalizatua eta SS-7500-B4 matrikuladuna. Tel.: 943 76 54 19. Raul.

• Opel Astra GSi 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Suzuki markako motorra salgai, ia berria. Prezioa: 100.000 pta.

Tel.: 616 15 53 73.

DENETARIK

26. Saldu

• Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

• Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

• Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

• Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

• Karro denda berri-berria salgai, bi hilabetez erabilia. Bi ohe, egongelatxoa. Tel.: 943 78 70 74.

• Akuariuma salgai. 100 litrokoa da eta ur filtroa eta termostatoa dauka. Tel.: 943 79 88 30.

• Nikon FM 10 argazki kamera salgai. Egoera onean. Tel.: 600 69 70 15.

• Errepideko bizikleta salgai, 57ko neurrikoa, koadro berria eta 7.020 aluminiozkoa. "Shimano 600". Osagaiak ipinita. 125.000 pta. Tel.: 943 78 00 28.

27. Erosi

• Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

• Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

• Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

• Arrue markako panpinentzako kotxe garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

31. Galdu

• Otalora kaleko farola baten ondoran tenazak galdu zitzaizkidan; kirtena gorria da. Tel.: 943 46 53 56.

• Urre zuriko erraztun bitxiduna galdu zait. Balio sentimental handikoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, eskertuko dugu. Tel.: 943 79 23 17.

• Puntuzko txaleko gris bat galdu dut Iturriotz kalean. Tel.: 649 88 79 22.

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Arxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidenda-

ko algodoizko 2 funda galdu nituen Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

33. Bestelakoak

• Dieta pertsonalizatua Nutrikarekin. Tel.: 619 32 62 27.

32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Udalara bidean giltza batzuk ageritu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Zaldia baduzu eta neurea zaintzeko aukera baduzu, tratu batera hel gaitzke. Tel.: 943 79 21 86. Jone.

• Garibai eta Biteri etorbideko bidegurutzean izandako istripu batean lekukoak behar dira. Istripua otsailaren 2an izan zen, Citroën Xsara gris batek eta Seat Ronda zuri batek elkar jo zuten. Norbaitek zerbait ikusi bazuen, deitu 943 81 13 26.


• Lurrin eta kosmetika enpresa multinazionalak saltzaileak behar ditu. Taldeko buruak eta komertzialak behar dira. Soldata altuak eta Estatu mailako hedapena. Bitxi eta Gold Field katalogoa zure esku jarriko dugu. Tel.: 670 27 04 96.

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Neurria ez da arazoa izango udaberriko moda gaztea jatzeko.

Neurri guztiak ditugu, baita zabalenak ere.

Laura



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 943 79 05 80**



Igokundearen Ikastetxean ("Kukaratxak" deiturikoan) ikaslerik zintzoenei saria ematen zieten kurtsu amaieran. Banda zuriak jarriz, puntualtasuna, diziplina, portaera ona eta antzeko dohainak saritzen ziren. Alkatea eta parrokoa joan ohi ziren horretara.

1947ko uztaillean ere halaxe egin zuten. Domingo Arzamendi Aranzabal zegoen orduan alkate eta Jose Luis

Iñarra zen herriko parrokoa.

Saritutako nesken izen batzuk aipatzearen, goitik hasita ezkerreko aldean azaltzen diren neskatilak honakoak dira: Mari Paula Kruzelaegi, Jasone Uribesalgo, Miren Gaztañares, Pilar Arzamendi, Concha Uribe, Ana Mari Bartolome, Esther Nazabal, Arantza Zeziaga, Carmen Mendizabal, Pilar Arana Maria Nieves Ota-
duy, Fuensanta Gaztañaga eta Rosita Arana.

Beherago, eserita dauden neskatilak: Conchita Berezibar, Isabel Garzia, Ana Mari Kruzelaegi, Espe Ugarte, Herminia Lagunilla, Isabel Agirrebeitia eta Elena Berezibar. Eskinako neskatila, aldiz, ezezaguna zaigu.

Erdi-erdian: Angeles Bartolome, Madre Paz Garzia eta Carmen Zendokiz.

Lau edo bost kurtsotako neskatilak dira argazkian azaltzen direnak. Oinarrizko hez-

kuntza ikasten zuten ikastetxe hartan; baita musika, marrazkia eta antzeko ikasketak ere. Horrez gain, batxilergoa eta magisteritza ikasteko aukera ere bazegoen, nahiz eta ondoren Gasteizera eta Valladolidera joan behar azterketak egitera.

Argazkia eta berriemailea:
Maritere Alonso



Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

ZAFIRA





Zure begien
lilurarako



Los emigrados

Txalo produkzioak S.L.-k

aurkezturik

antzerkia

Slawomir Mrozek-ena

Mulie Jarju

Roman Luknár

Zuzendaria

Ramón Barea

Eszenografia: Jose Ibarrola

Musika: Pascal Gaigne, "Hijas del Sol"-ekin batera

Amaia Antzokia

Apirilak 2, Igandea • 19:30

Sarrera: 1.000 pta • Gazte Txartelarekin: 800 pta



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■



RENAULT Kangoo

Hau auto baten iragarkia besterik ez balitz, bere dTI motor berriaz, airbag bikoitzaz edo lagunduriko direkzioaz hitz eginez hasiko ginateke. Horrelakoak ondo geratzen dira autoen iragarkietan. Horrez gain auto handi batez hitz egin behar bagenu, aipatu egin beharko genituzke goragailu elektrikoak, aire girotua, audio tresneria... Baina hori guztia baino askoz gehiago da Kangoo, esandako guztiaz gain Renault Kangoo berriak alboko bigarren atea baitauka eta ibilgailu baten aldagarritasun guztia, lanerako... edo beste edozer gauzatarako. Edozeinek ezin du hori esan. Beraz, ondo pentsatuz gero, hau ez al da auto iragarki bat baino gehiago? **INFORMAZIOA ESKURATZEKO, DEITU: 902 333 500. www.renault.es**

Renault Kangoo

Baztertu autoari
buruzko ideia zaharra

Pasiatu

Eskiatu

Zaldian ibili


Atsedean hartu

Eskalatu

Urpean ibili

Arrantzan egin

Nabigatu



Renault Kangoo. Edozertarako irekita.

Badakizu nola gozatu eta lan egin %0 UTB (TAE) duen Kangoo batekin?
Mecan galdetu!

MECA

ARRASATE

Tel. 943 71 91 67

BERGARA

Tel. 943 76 40 68

TOLOSA

Tel. 943 65 28 43